









R. 2891
N.M. 2841
R. 34773

Esuel
5.00



•ATV
9.465

SATANASEN BANDERA

EDO

LIBERALQUERIYA

OSORO DA

MADARICAGARRIYA.

Non ut confundam vos hæc scribo, sed ut... meos charissimos moneo.

(I. ad Cor. cap. IV, v. 14.)

Gauza oyec esribitzen ez ditut zubec lotsatu zaitzate-dan, ezpadá gucz nere mai-teac becela contuban jartzen zaitzitet.

Hæc scribo vobis ut non peccetis. (I Joan. cap. II, v. 1.)

Pecatu eguin ez dezazuten esribitzen dizquitzet gauza oyec.

B. P. A.

TOLOSAN

Francisco Muguerza-ren moldizteguian

1896 an

JABEA BADU


LIBURUCHO AU MOLDERATU ETA ARGUITARATZEKO

OBISPO JAUNAC EMAN DUAN ESCUBIDEA.

Guc, Bayonaco Jaun Obispoaren Bicario generalac, iracurri degu SATANASEN BANDE-RA deritzan liburuchoa, eta gogotie onesten degu izan dedin arguitarat emana; au iracurturicau icasiren baitu cristau, bide zucnean ibilli nai duhenac, cembat galgarriya dan liberalqueriya eta cembat gaitz daucan gordezten. Au icusiren baitu, ona bada ere eta baliola Jaungoicoac oneraco eman digun libertadea, gaiztoa dala debeatua eta madaricagarria gaitzquiraco libertadea; eta liberalqueriyac, ontzat daducan ezqueroz, hai oneraco hai gaitzeraco libertadea, zucen aundi-requin condenatua dagoala Eliza santuaz liberalqueriya; eta catolico guciyac osoro gorrotatu bear dutela. Arguibide orrequin icusiren dute pecatu dala liberal izatea; pecatu dala liberalac laguntzea; pecatu dala liberalai botoac ematea; pecatu oyen liburuac eta gacetac iracurtzea edo erostea; eta eguizco fedetic eta ceruraco bidetic aldeguin nai ez duhenac, liberalqueriyari uco eguin bear dubela.

Bayonan emana Agorrillaren 24-an 1888-an.

INCHAUSPE, *apeiz Bic. Gen.*



AMA-BIRGIÑARI

LIBURU ONEN ESQUENTZA.

¡Birgiña eder eta Ama gozo, Maria guciz santa! Zu cera bacarric suguea sartu gabeco *ortu ichiya*; (1) zu, haren puzoyac icutu etzuban *ilurri sellatuba*. (2) Baita ere zu cera ¡oh Maria! jainco guezurrezcoac edo Satanas eta bere lagunac izutubaz, cristautasuna edo zure Seme Jaungoicoaren erlijiyo eguiyazcoa mundu gucira zabaldu dezuna; (3) munduco dotriña gaizto guciyac, fede-auste edo erejiyac bacarrican zuc deseguin dituzu. (4) Euscal-erriyan batecere, añ gogotic eutsi baciyoten guro aurrecoac zure Semearen erlijiyo ederrari, erlijiyo orrequin añ zucen joaten baciran cerura, eta mundu onetan bertan ere añ zorion aundi-coac baciran, zuri, Jesus gozoaren Ama, eta ez besteri zor etziyozcaten mesede izugarri oyec. Izar tistiatzalle eder bat becela izandu cera zu euscal-errico mendi oyetan: Aranzazu, Iciar, Ordu-

(1) *Cont.* cap. IV, v. 12.—(2) *Vide idem.*—(3) *Div. Cyrillus* adv. Nestorium.—(4) *Ecclēsia* in off.

ña eta zure iconoco beste cembait errezo-lecubac, beste aimbeste gaztelubac becela izandu dira, galerazten ciyotennac Satanás eta bere lagun gaiztoai euscaldunac oquertzea.

Bañon ¡ay nere Ama laztana! dembora guchiz onuztican euscal-erriya lena ez da: sarturic bertan sugue madericagarriya, animen Eiztari marrajo eta galgarriya, euscaldunen artean oi ciran dotriña garbiyac eta oitura onac puzoitua eta galtzen ari da; cembait euscaldun ichubac sinisturic Satanás guezurtiyaren esanac, libertade gaiztoetara zaletzen ari dira; zure Semeac, Jesus mansoac, euscal-erriyan zabalduric ceducan bandera zuri edo erlijiyo ederraren lecuban, Satanás amorratubaren bandera beltza edo liberalqueriya jarri nai da, galtzen diralaric orréla animac eta zorigaiztotu euscal-erriya.

¡Ay bada nere Ama maitea! hori da nic eciñ eraman dedana, benaz pecariya banaiz ere; eta galeraci nayan esan dizquitzudan oquerrac, zure oñetan uzten dedau liburuko au esribitu det. Ar-ezazu bada, Ama maitea, zure azqueneco ume eta serbitzari onec lotsaz, bañon gogo onez esqueñtzen di-

zun liburu chiqui au: bedeincatu eza-
zu bera, frutu ugariyac eta gozoac
emango dituban landare bat becela izan
dediñ: bedeincatu liburuko au, izan
dediñ bera euscaldunentzat liberalque-
riyaren contraco escutarma becela.

¡Maria! zure lengusu santa Isabel
icustera joan ciñan egun gogoragarri-
yan ari naitzazu erregutzen: arren ba-
da, lengusubaren echean zure bi-
dez Jesus onac issuri cituban ceruti-
caco graciya eta doayac berac issuri
ditecela euscal-erriyan; izutu ezazu
deabruba Juan santubangandic becela;
Espiritu Santubaz bete bedi, liberal-
queriya utziric euscaldun guciyoc, ser-
bitu eta alabatu zaitzategun zu eta Je-
sus zure sabeleco frutu gozoa.—Maria!
ala escatzen dizu zure serbitzari eus-
caldun onec.

B. P. A

ITZAURREA.

Jaungoicoac badaqui, iracurle euscaldunac, nola nai dizutedan zueri *guciyoi* Jesucristo gure jaunaren errayetan (1): aimbeste nai dizutet ece, zuen ondo icusteagatican, batecere cerura zubec joateagatican, nequerie gogorrenetara osoro pocie jarrico nintzaque (2): bestela sinistu nai ez baceniaquizute, liburucho onetan daducazute nere esanaren sinisgarri bat.

Ez det escribitu liburu au zubec mindu edo lotsatzeagatican, eta bai baccarrie, senide guciz maiteac eta lagun cutunac zaituztedalaco, ceron zorioneraco egui batzubec eracusteagatican. *Non ut confundam vos hæc scribo, sed ut... meos charissimos moneo.* (3)

Adam eta Ebari eman citzaten lurreco paradisubaren antzeracoa guenduban euscal-erriya, Satanas suguea edo LIBERALQUÉRIYA bertan sartu citzaigun arteraño: gueroztican ordeagaitzaren aranzaz betetzen ari da bera,

(1) *Philipp.* cap. I, v. 8.—(2) *Rom.* cap. IX. v. 3.

(3) *I Cor.* cap. IV, v. 14.

gueron animen eta len guenducagun zorionaren caltean.

Euscal-erriya len zana izateco beraz, eta euscaldunac ceruraco bidean zucen ibiltzeco, ntzi bear da liberalqueriya; bada au PECATU LARRIYA DA, eta *pecatuba da erriyac zorigaiztotzen ditubana* (1), baitaere pecatu larriya da animac betico galtzen ditubana.

Liburucho au ematen zazute bada, euscaldun maiteac, liberalqueriyaren gaitza ezaguturic bera gorrotatu eta madaricatu dezazuten, *liberalac* edo liberalen *laguntzalleac* izan etzaitezten, eta alde onetatic *pecatu eguin ez dezazuten*. *Hæc scribo vobis ut non peccetis* (2).

Chiquiya danean liburu au ez dezazutela despreciatu, escola-umeen dotriñachoa despreciatzen ez dezuten becelac: eta pensatu bear ere ez dezute bertan eracusten zazutena nere asmaciyo bat dala; bada Elizaco dotriña euscaraz ipintzea beste lanican eguin ez det nic liburucho onetan.

Nic lan chiqui au eguitearequin bat arguitaratu da gure Aita Santu maiteac aurreco egun batean LIBERALQUERI-

(1) Prov. cap. XIV, v. 34.

(2) I Joan. cap. II, v. 1.

YAREN CONTRA eman duban arguibide berri bat: arguibide onetan, Jaungoicoari eskuerrac, nic euscaraz jarritaco gauzaric batecere ez da guezurtatzen, eta bai herritzen dirade bertan liburucho onetaco ateraldi franco.

Nolanaire beintzat, eta engañatzen banintz ere nere esanetan, nai det airtortu, ama Eliza santac eracusten duban dotriña besterican ontzat ez daducadala: balego beraz liburu onetan Elizac debecatnba daducan edo inoizco demboretan debecatu lezaquean gauzaric, bertatican macurtzen naiz pocic Eliza santaren esanetara, berac gaiztotzat daducan guci-guciya nic ere gaiztotzat artzen dedala.

Milla zortzireun eta larogueita zortzigarren urteco Ama Birjiñac bere lengusu Isabel santa bisitatu zuan egun gogoangarriyan.

B. P. A.

Satanasen bandera edo liberalqueriya

OSORO DA MADARICAGARRIYA.

I.

Sarrera.

Galdera. Liberalqueriyaren gaya icasí bearric ote dago cristau euscaldunen artean?

Erantzura. Bai, eta ez guchi ere.

G. Cergatican bada?

E. Gai ori bear adiña ezagutu gabez liberalac-quin gueyeguiyan ibilli, eta itsatsitzen zaiztelaco dotriña gaizto asco, heren animen caltean.

G. Cer dotriña dira oyec?

E. Erlijiyo guciyac gendeai auqueran ipiñi bear zaiztela; Elizaz campoco ezcontzac libre utzi bear dirala; erlijiyoac politicarequin ez daducala cer icusiric; ondo iduqui bear duala Aita Santubac berari eliz-lurrac quendu diyozcetenac quin; eta oyen antzeco beste asco.

G. Cergatican gueyago ouscaldunac icasi bear dute liberalqueriyaren gañeco dotriña?

E. Bere faltaz, edo oquer aundiric eguiten ez dutelacoan, baitaere lagun-tzen diyelaco ama Eliza santaren etsaiyai gauza ascotan.

G. Certan edo nola laguntzen diye bada?

E. Erlñiyo gabeco edo guchico guizonai *botoac* emanda: gaceta eta paper gaiztoetan diruba gastatuta: dotriñaric gabeco escolotara umeac biralduta: bi-jili edo arrai-egunac gordetzen ez diran echeetan, alaiñoco premiya gabe, ser-bitzen egonda: *teatro* edo icusgarri la-sayetan ibillita: eta beste era ascotara.

G. Liberalqueriyaren gayan dotriñac edo personac sartzen dira?

E. Dotriñac berenez: argatican amoriyoa eta erruqui aundi bat izan bear diyegu liberalai, gure lagun urco ichuai becela; hañon beren iritzi edo opini-yoac eta dotriña biyurriyac oso-osoan eta eguiñala guciyan gorrotatu bear ditugu.

G. Eta nun icasi bear da liberal-queriyaren gañeco dotriña?

E. Eliza ama santaren arguibidee-

tan: au da, Aita Santubac eta obispo jaunac guretzaco escribituta dauzcaten carta edo gacetetan; bada berac dira Jesucristoren lecuban daudenac, erlijioari dagozquiyon gaucetan, cristau guciyoi eracusteco.

G. Nun bestetan icasi guentzaquegu dotriña ori?

E. Aita Santubac eta obispo jaunac ontzat eman dituzten gai orretaco liburu eta paperetan.

G. Elizaco arguibideetan ¿ceñ da sonatubena liberalqueriyaren gayeraco?

E. *Syllabus* deritzayona.

G. Cer esan nai du icen orrec?

E. Opiniyo eta dotriña gaiztoen *lista*.

G. Norc eman zuan listá edo *Syllabus* ori?

E. Aita Santu Pio bederatzigarrena zanac.

G. Eta cergatican da añ sonatuba arguibide ori?

E. Liberalqueriya zucenen-zucena bertan zampatzen dalaco.

G. Eta obispo jaunac escribitu izan dituzten gaceta edo aguiriyetan ¿egoquiyenac ceñ ote ditugu?

E. Beste batzuen artean bi: bata da orain lau urte Vitoria-co obispo jaunac beste host lagunac-quin batera eguin zuana; eta bestea da berriz, iru urtez onuztic Ecuador-co zazpi obispoc alca-
rren artean esribitu zutena.

G. Cergatican dira añ egoquiyac esan diran bi carta oyec?

E. Liberalqueriyaz beste ascoc ba-
ñon cearogo eta nabarmenago itzegui-
ten dutelaco.

G. Eta liberalqueriyaren contraco dotriña dacarten liburubetan ¿ceñ da sona aundiyeneco?

E. *El Liberalismo es pecado* icena duana; eta icen orrec euscaraz esan nai du, *Liberalqueriya pecatu da*.

G. Ceñec esribituba da liburu ori?

E. Cataluña-co apaiz jaquintsu eta birtute aundico batec.

G. Cergatican du añ sona aundiya liburu orrec?

E. Bertaco dotriña guciya oraindi-
can-orain ontzat eman dualaco Erro-
ma-co tribunal zorrotz batec.

G. Cer tribunal da ori?

E. Liburubac contuz icusi eta juz-
gatzeco Aita Santubac beraiz daucana.

G. Liberalqueriyaren gañeco dotri-

ña ondo icasi edo ezagutzeco ¿cer bear da?

E. Iru gauza batecere bear dira: bata da, berotasun aundi batequin Jaungoicoari artaraco laguntasuna eta arguiya escatzea: bestea da, ematen diran arrazoyac edo sinisgarriyac contuz, gogo onez, eta *odol otzarequin* aditzea: eta irugarrena da, Jaunaren aurrean jarri, eta eriotzaco orduban beraricet contu estua eman bearco zayon pensatzea, utzi nai ez badira orain dotriña edo opiniyo debecatubac.

G. Cergatican bear da Jaungoicoari escatu?

E. Guerenez gauza onic baterere eciñ izan guentzaguquelaco.

G. Cergatican arrazoyac aditu bear dira odol otzarequin?

E. Griña char berogarriyac gale-razten dutelaco, queac becela, eguiya icusten.

G. Eta cergatican pensatu bear da eriotzan?

E. Ordu icaragarri artzaz gogorazten gueranean zucenago gabiltzalaco.

II.

**Liberalqueriya cer dan ascoc
ez daquite.**

Galdera. Gauza gaiztoren bat al da liberalqueriya?

Erantzera. Bai, eta osoro da gaiztoa.

G. Nun iracurtzen da ori?

E. Len aitatu dan listá edo *Syllabus* artan.

G. Cer eracusten zaigu bada arguibide orretan?

E. Beste gauza ascoren artean aracer: Aita Santuba eta liberalqueriya inolaere eciñ ondo etorri litezquela bata bestearequin, eta eciñ alcar-artu dezaquela biyac. (1)

G. Cer esan nai du orrec?

E. Aita Santuba edo catolicotasuna eta liberalqueriya, osoro dirala alcarren etsayac, arguiya eta illuna, eguiya eta guezurra, Jesucristo eta Satanás diran becela; bada ala ez izatecotan, beñ edo beñ bata bestearequin ongui etorri eta alcar-artuco bai luquee.—Ca-

(1) Syll. prop. 80.

tolicotasunaren añ atsai aundiya izateco beraz, osoro da gauza gaiztoa liberalqueriya.

G. Liberaletan gende onradu asco ez da bada?

E. Bai, badira liberaletan persona onac, eta eguiya esateco ez guchi.

G. Dirudi beraz liberalqueriya ez dala esaten dan becela gaiztoa?

E. Orretara bagoaz baitaere moro artean, juduetan eta gure erlijiyoaz campoco beste gende ascoren artean badira persona ónac; bañon alaere gure erlijiyoaz beste aldeco gende oyec ez bai dijoaz hide zucenean.

G. Liberalqueriyac ez du esan nai beraz liberalac bicitza gaiztocoac dirala?

E. Ez; bada liberalac ez diran catolicoetan ero, erocēñec daquiyanec, badira *bicimodu* gaiztocoac: baitaere obispo jaunac eta Aita Santuba bera izan litezque peçatariyac.—Personaren bicitza edo obrac icustera baguijoaz ez da izango iñor bere argaltasunac ez ditubana; bada Jaungoicoaren liburu santuetan esaten zaigu *gauza ascotan utseguiten degula guciyoc, eta pecaturican ez duala diyonac, eguiya ez diyo-*

Ja.—(1) Penitenciaco sacramentu santuba ere beragatican dago utziya pecatari guciyontzat. — Bañon liberalac bicimodu ona daucatelarican ere, bide zucenic campo dira eta liberalqueriya bera pecatu da.

G. Liberalqueriyac esan nai ote du liberal guciyac bestelaco catolicoac bañon *gaiztoagoac* dirala beren bicimoduban?

E. Ezta inñola ere; bada liberalac ez diran catolicoetan badira ordu gaiztoan gaizquille aundiyac, eta erocenez daqui liberal guciyac eta asco ala ez dirana.

Baita ere gañera, gure erlijiyo ederraz campoco personetan badira batzuec cembait catolico bañon obeac beren bicimodu edo obretan; eta alaz guciyaz ere, fedegabeco gende errucarrri oyec ceruraco bidean ez dijoaz, bañon bai catolicoac beren erlijiyoari zucen jarraitu nai baliyote: bada era berean liberalac, ama Eliza santaren beguitan egoteco, dauden becela, guero icusico danez, *cerocer* badute beste catolicoac ez dutena.

(1) Apisth. cath. Jacob. cap. 3, v. 2. AEpist. I. Joan. cap. 1, vs. 8 et 10.

G. Liberalqueriya cer dan ezagutzeco beraz ez da beguiratu bear personen bicimoduco argaltasunetara?

G. Ez aimbeste nola beren opiniyo eta dotriñetara; bada liberalac daucaten gaitza biotzeco bañon gneyago da *burucoa*. Argatican icusten da, liberalac ez diran catolicoac, edo catolico osoac, pecatari aundiyac balira ere argaltasunnaz, erlijiyoaren aldeco celoa badutela: eta catolico-liberalac contrara, beste gañeracoan osoro onac izanda ere, erlijiyoco gauzac gaizqui joan arren, batere plametitzen ez dira; eta are guchiyago, politicaco eta echeco eguinquizunac ongui balijoazquiye.

G. Liberalqueriya beraz cerocergure erlijiyoaren contraco gauza da?

E. Bai, alassen da; bada gure erlijiyoac gaiztotzat ematen dituban opiniyo eta dotriña asco, liberalqueriyac ontzat eta onragarritzat daduzca: eta orra nola utseguiten duban liberalqueriyac, bestetan utseguingo ez balu ere, fedearen edo erlijiyo eguiyazcoaren contra.

G. Liberalaren icenac *opatsua*, *ugaritsua* edo *emallea* esan nai ez du bada?

E. Bai alde batera.

G. Eta opatsua, ugaritsua edo emallea izatea opiniyo edo dotriña gaiztoren bat al da?—Ez dirudi beintzat.

E. Noiz eta nola. Opá dan gauza *gaitz-gabea* edo *óna* balitz, orduban bai, emallea edo ugaritsua izatea alderdi óna eta birtute aundi bat litzaque, erdaraz *liberalidadea* eta euscaraz *liberaltasuna* esaten dana; bañon eman nai dana edo ugari opá dana, gauza gaiztoren bat danean, opiniyo errebesac diran becela, opatsua, emallea edo ugaritsua izatea, gaiztaqueriya litzaque; eta orri deritzayo *liberalismo* erdaraz eta *liberalqueriya* euscaraz.

G. Liberaltasuna eta liberalqueriya gauza desberdiñac dira beraz?

E. Bai, *ontasuna* eta *gaiztaqueriya* becela.

G. Limosnaguilleac diralaco artu etzuten bada liberalac beren icen ori?

E. Ez.

G. Cergatican ez?

E. Liberalaren icengoitiya artu bañon lenago ere haciran gende biotz-beraac eta limosnaguilleac, eta alaz guciyaz ere bereganatu etzuten liberalac icengoiti ori dotriña eta opiniyo biyurriyac asmatu ciran arte.—Orrezaz ga-

ñera eroceñec daqui liberalac ez diran catolicoetan ere badirala limosnaguilleac eta pobreaquico erruquitsubac, eta ala ere liberalaren icengoitiya eraman nai ez dute.—Liberalaren icena eramateac adierazten ez du beraz limosnaguillea dala, baicican beste cörocer.

G. Gai ori bera sinistaracitzeco beste arrazoiric ote dago?

E. Bai, badago, ara emen. Liberaletan badira batzuec ez eman, baicican artuco luqueenac pocic berai eman ezqueroz; baita ere badira beste cembait liberal, emateco bañon quentzeco obeac diranac, testigu bestela Elizaren ondasunac utsean erosi cituztenac: testigu gañera, irabaci arloteac emanaz eta jayegunai bargatu gabe, beren mende-coai lana galanqui eraguiten diyenac, asco fabrica eta lanteguietan icusten danez.—Orrelaco liberalac beraz, au da, emateco ez daucatenac eta dirura itsatsiric daudenac, daramaten icena ez daramate limosnaguilleac diralaco, eta bai beste cerocergatican.

G. Liberalqueriya ote da bada guizonen arteco banderaren batecoa edo bestecoa izatea, onelaco edo alaco erre-

publica edo erreguetzaren alde egotea?

E. Liberalqueriya berez ez da ori ere, eta ara cergatican. Bandera eta gobernu-bideac, *erlijioarequin batera* balijoaz, guciyac onac edo gaitz-gabeac liraque; eta erlijioaren contraco alderdiren bat balecarte banderac edo gobernu-bideac, erocer ieen eta eratacoac izan ditecela, guciyac dira ordu-ban gaiztoac.

G. Dotriña ori garbiyago adieraci ote leique?

E. Bai, ara nola. Ecuador eta Bolivia esaten diran lecuetaco bi errepublicac, guciz dira onac eta Aita Santubaren gogocoac, gaur beintzat; bada Eliza santaren dotriña eta escubideac ontzat ematen dituzte: Francia-co errepublica berriz, eta Italia-co erreguetzá, Eliza perseguitzez asetzen ez diralaco, osoro dira gaiztoac.—Eta beste aimbeste, edo alatsu, esan bear da errepublica, erreguetza eta beste erocer erataco gobernu guciyac-gatican.

G. Aita Santubac cer diyo gai orrezaz?

E. España-co obispo guciyai urte guchiz onuztic biraldu ciyen carta batan, ala diyo: «Erriyen gobernuari da-

gozquiyon gauzac, *erlijiyoaren edo zucentasunaren contracoac ez badira*, Elizac inolaere debecatzen ez ditu.» (1) Eta guerozticaco beste carta eder batean, ara cer diyon: «Erocer eratacoa dala gobernu-bidea, bat bacarrican ere ez da *berez* gaiztoa danic.» (2)

G. Eta obispo jaunac cer diyote gai berean?

E. Aita Santubaren itzac ontzat eman eta ezarrirican daduzcate beren cartetan.

G. Guizonen arteco bandera bat ona izango bada beraz ¿cer bear da?

E. Ontzat eman bear du Eliza ama santac Jesucristo-gandic daducan eracus-bidea: beraren eguinquizunetan sartu bear ez du berez: ez eta zucentasunaren contraco gauzarican eguin bear ez du.

G. Eta nola ezagutuco degu ona edo gaitz-gabea dan bandera bat?

E. Beguiratubarequin bandera orretaco aguintariyac edo buru diranac cerocer *esquien*i, *aitortu* edo aguintzen ote duten Elizaco legue eta dotriñarequin ondo ez datorrena.—Eta are errazago

(1) *Encycl. Cum multa*, ann. 1892.—(2) *Encycl. Immortale Dei*, 1.^o die Nov. ann. 1895.

ezagutuco degu, bandera ori *liberaltzat* dagoan edo ez icusiyarequin; eta liberaltatzat artu bear da bandera bat, bere burubac edo aguintari *nagusiyac* daramatenean *onra aundiz* liberalaren icena.

III.

Adierazten da liberalqueriya cer dan.

Galdera. Nundic sortu zan liberalqueriyaren icena?

Erantzuer. Liberalaren icenetic.

G. Liberalaren icena da beraz liberalqueriyaren sustraya?

E. Bai, ala da.

G. Cer esan nai du liberalaren icenac?

E. Libertade-zalea, edo aleguñean libre bici nai duana: argatican liberala esatea da *librea* esatea adiñasse.

G. Eguiya da ori?

E. Bai, bi arrazoigatic da eguiya: bata da, liberalac beti libertadearen esquean dabiltzalaco: eta bestea da, liberalac berac ere aitor dutelaco.

G. Jaungoicoac guciyoi eman etzizgun bada libertadea?

ezagutuco degu, bandera ori *liberaltzat* dagoan edo ez icusiyarequin; eta liberaltatzat artu bear da bandera bat, bere burubac edo aguintari *nagusiyac* daramatenean *onra aundiz* liberalaren icena.

III.

Adierazten da liberalqueriya cer dan.

Galdera. Nundic sortu zan liberalqueriyaren icena?

Erantzura. Liberalaren icenetic.

G. Liberalaren icena da beraz liberalqueriyaren sustraya?

E. Bai, ala da.

G. Cer esan nai du liberalaren icenac?

E. Libertade-zalea, edo aleguñean libre bici nai duana: argatican liberala esatea da *librea* esatea adiñasse.

G. Eguiya da ori?

E. Bai, bi arrazoigatic da eguiya: bata da, liberalac beti libertadearen esquean dabiltzalaco: eta bestea da, liberalac berac ere aitor dutelaco.

G. Jaungoicoac guciyoi eman etzizgun bada libertadea?

E. Bai, bañon ez liberalac nai duten adiñacoa.

G. Cer libertade nai dute bada liberalac?

E. Guciracoa, erriyetaco paquea galeracitzen ez duan bitartean.

G. Cer da beraz libertadea liberalen aoan?

E. Nai dana pensatu, esan eta eguiteco *escubidea*, gende arteco guerrac ez sortzecotan.

G. Gaitzeraco libertadea ere beraz nai dute liberalac?

E. Aissa nai dute.

G. Nola probatzen da ori?

E. Biciro erraz. Escatu gabe ere baguenducan *guciyoc*, Jaungoicoac emanda, ontasunean ibiltzeco libertadea: liberalac billatu eta escatzen duten libertadea beraz, besteren bat da, lengoaz gañecoa, *berriya*: eta libertade au gaitzeracoa baicic eciñ izan liteque.— Gañera: liberalac itzero darabilzquiten ateraldiyac, eta artzen dituzten libertadeac, edo nai lituzqueenac, banaan-banaan ondo icusten badira, arquituco da gure erlijiyoaz beste aldecoac edo Jaungoicoac ipiñitaco leguearen contracoac dirala: arrazoiz esaten da beraz

liberalac nai eta billatzen duten libertadea gaitzeracoa dala. .

G. Jaungoicoac oneraco bacarric eman alcigun libertadea?

E. Bai; bada inola ere eciñ eman ceiguquean gaitzeraco libertadea.

G. Cergatican ez?

E. Bere santutasun neurri-gabeac galerazten diyolaco: bada gaitzeraco libertadea, baimena edo escubidea guri emateco, berac ere gaiztoa izan bearco luque.

G. Ona eta gaitza auqueran ipiñi ez dizquigu bada?

E. Bai; bañon auquera orrequin batera *aguintzen digu* óna, eta *debecatzen digu* gaitza: (1) eta orra nola, onaren eta gaitzaren auquera iduqui arren, ontasuneraco beste libertade edo escubiderican ez daucagun.

G. Cer guertaldirequin adieraci ditque obeto dotriña ori?

E. Adam eta Eva gure lenengo gurasoai guertatu citzayenarequin.

G. Cer guertatu citzayen bada?

E. Lurreco paradisuan arbola guciyac auqueran ipiñi cizten Jaungoi-

(1) *Deuter.* cap. 30, v. 19, — *Psalms*, 83, v. 15. et 16, v. 27. — *Ecc.* cap. 15, v. 14 ad finem. — Etc., etc.

coac; bañon dembora berean debecatu ciyen paradisuaeren erdi-erdiyan cegoan arbolatic jatea, eta debecu ori zan erio-tzaren azpiyan. Jaungoicaaren debecu-ba ordea autsi eguin zuten Adam eta Evac, eta beragatican izan zuten Jaun-goicoarequico icusquizun aundiya, bai-taere ill ciran.

G. Jaungoicoac debecatu zuan ar-bolari ñola deritzayo?

E. Ouaren eta *gaitzaren* jaquindu-riyaco arbola.

G. Eta cer eracusten zaigu guri guertaera orrequin?

E. Baita ero guc auqueran dauzca-gula óneraco eta gaitzeraco bideac; ba-ñon debecatzen dituan ezqueroz Jaun-goicoac gaitzeraco bideac, oyetan eciñ ibilli guindezqueala animaren galera edo Jaungoicoarequico icusquizun gabe.

G. Cer aditu bear da beraz Jaun-goicoac emandaco libertadearen icena-requin?

E. Ceruraco bidean edo ontasunean traba gabe ibiltzeco daducagun escu-bidea.

G. Cer da libertade orrequin nastu bear ez dana?

E. Naiz ona eta naiz gaitza auque-

ratu eta eguiteco gure animac duan almena edo indarra.

G. Norc eman cigun animaco indar ori?

E. Jaungoico gure Jaunac.

G. Eta certaraco?

E. Bere laguntasunarequin batean ceruba gueroc irabaci eta gueyago gozatu guentzagun; bada necatuta izaten dan gauzari, gueroenean gusto gueyago artzen baitzayo.

G. Libertadea eta esan dan animaren indarra, ez dira izango bat?

E. Ez, ez dira.

G. Cergatican ez?

E. Libertadeac berequin du *escubide*a nai dana eguiteco; bañon animaren almenac ez du, ontasuneraco ezpada. Eta ala, gure animaren indarrez, gaizquille aundiyac izan baguindezque ere, dala lapurrac edo Eliza santaren perseguitzalleac, baita ere *blasfemari* edo Jaungoicoaren despreciatzalleac, eta beste erocer gauza; escubiderican ordea ez daducagu artaraco, eta eciñ izan guentzaguque, nayagatican ere.

G. Cergatican artu ez guentzaguque gaitzeraco libertadea?

E. Jaungoicoac guciyoc bere men-

dean gauzcalaco, bada bereac gaitu: debeatzean beraz guri gaiztaqueriya, beartuac gaude berari obeditzera, edo bere aguimbidearen azpiyan egotera: ala ez degu gaitzeraco libertadea, banoon bai almena.

G. Eta nola ezagutuco ditugu ontasunaren neurri edo mugac?

E. Jaungoicoaren legueari beguiratuta.

G. Norc eracutsi bear digu legue ori?

E. Eliza gure ama santac; bada bera da Jaungoicoac animentzaco ipiñiya daducan illarguiya.

G. Eta nundic du Elizac dotriñaren arguiya?

E. Jesucristo ceruco eguzquiya-gandic.

G. Elizaren aguimbidea aintzaco-tzat iduqui bearco da beraz?

E. Bai aissa ere.

G. Cer gaucetan aditu eta obeditu bear zayo Eliza santari?

E. Erlijioya nola nai icutu deza-queen gai guci-guciyetan: au da, Jaungoicoaren gloriyari eta animen onari dagozquiyyetan.

G. Eta liberalac cer muga ipintzen ote diye beren libertadeari?

E. Ez besterican, gende arteco edo erriyetaco paquea galdu ez dediñ bear diranac.

G. Erlijiyorican ez al dute bada nai liberalac?

E. Eguiyazco liberalac, au da, liberalqueriyara jaquiñaren gañean itsatsiric daudenac, erlijiyorican nai ez dute, sociedade edo gende arteraco ez beintzat; bacarrican beste aldeco catolico fin edo osoen beldur diranean, edo guerraren bat sortu ditegnenean, artzen dute erligiyoaren *irudiren bat*.

G. Esan diran contuetan ¿cer ote da bada liberalqueriya?

E. Icenaren *sustrayari* beguiratzen zayola, liberalqueriya ez degu besterican: nourriz gañeco edo *gaitzeraco libertadea ontzat daucatenen bandera*: da liberalqueriya, Jaungoicoac emandaco *libertadeari bere mugac igarotzen diyozan dotriña*: da, ona eta gaitzaren jaquinduriyaco arbola bat becela: da azquenican, *Jaungoicoaren nagusitasuna ezagutu nai ez dutenen arroqueriya*, edo Jaungoicoaren *aguibidetie* irten-naya.

G. Eta liberala izatea cer da?

E. Da gaitzeraco libertadea ontzat eman edo artzea: da Jaungoicoac eman-

daco leguearen conturic ez iduqui edo ez nai izatea.

IV.

Gai-bera.

Galdera. Aspaldicoac aldira liberalac munduban?

Erantzuer. Osoro aspaldicoac; bada munduba ezqueroco onetan, liberalac izandu ez diran demboraric ez da, esaera bateraco.

G. Adam eta Eva liberalac izan ote ciran bada?

E. Pecatu eguin eta pecatuban egon ciran bitartean, bai, liberalac izandu ciran.

G. Cergatican bada?

E. *Jaungoicoa becelacoac izan nai zuqueen gure lenengo guraso ayec, ir-teten cirala era orretara beren Eguille-aren aguimbidetic: baitaere gaitzaren jaquinduriya edo ezagüera nai zuque-en: eta gauza oyec irichico cituztela-coan autsi zuten Jaungoicoaren aguin-te erraza. (1)*

G. Adam eta Eva ditugu beraz le-nengo liberalac?

(1) *Genes.* cap. 3, vs. 5 et 6.

daco leguearen conturic ez iduqui edo ez nai izatea.

IV.

Gai-bera.

Galdera. Aspaldicoac aldira liberalac munduban?

Erantzuer. Osoro aspaldicoac; bada munduba ezqueroco onetan, liberalac izandu ez diran demboraric ez da, esaera bateraco.

G. Adam eta Eva liberalac izan ote ciran bada?

E. Pecatu eguin eta pecatuban egon ciran bitartean, bai, liberalac izandu ciran.

G. Cergatican bada?

E. *Jaungoicoa becelacoac izan nai zuqueen gure lenengo guraso ayec, ir-teten cirala era orretara beren Eguille-aren aguimbidetic: baitaere gaitzaren jaquinduriya edo ezagüera nai zuque-en: eta gauza oyec irichico cituztela-coan autsi zuten Jaungoicoaren aguin-te erraza. (1)*

G. Adam eta Eva ditugu beraz le-nengo liberalac?

(1) *Genes.* cap. 3, vs. 5 et 6.

E. Cerubaz beeraco mundu edo lur onetan, bai, ala dira, bañon Adam eta Evaren aurreco demboraldi batean ere liberalac baciran.

G. Cein ciran ayec.

E. Aingueru gaizto edo deabrubic; bada oyec nai izan zutena da, *ceuden lecutic gorago joan eta Jaungoicoa adiñacoac izatea*, irteten cirala beraren mendetic. (1)

G. Nor da ainguerubai gaiztaqueri artaraco bidea eman ciyena?

E. Beren guidari edo buruba, batzuetan *Lucifer* edo *Luzbel*, bestetan *Suguea*, eta gueyenetan *Satanas* deritzaiona.

G. Cer esan nai du *Lucifer* icenac?

E. Argui-emallea: eta du icen au aingueruben buru zana, oquertu zan aurrean izarrac bañon edertasun eta arguitasun gueyago citualaco: eta bere lagunac ere alatsu ciran ederrac eta arguiyac pecatu eguin zuten aurretic.

G. Eta ainguerubetan lenengoa edo buruba zanari berari ¿cergatican deritzaio *Suguea*?

E. Adam eta Eva engañatu eta

(1) *Isai. cap. 14, v. 14.*

gaiztotu bear cituanean animali orrezaz baliyatu zalaco.

G. Eta cergatican deritzayo Satanas?

E. Icen orrec *etsaya* esan nai du: eta dagoquiyo icen au, berac eta bere lagúnac pecatu eguin zutenetic, beti Jaungoicoarequin gorrotoan eta guerran daudelaco.—Eztaere munduco animac icusi eciñ dituzte Satanas eta bere lagúnac, eta eguiten dute eguiñala guciya berac galtzeco.—Aingueru gaizto edo deabru guciyai dagoquiye beraz *etsayen* icena, eta arrazoi gueyagorequin beren buru edo guidari beltzari deritzayo Satanas.

G. Jaungoicoari cergatican ote diyote esan dan gorrotoa?

E. Pecatu eguin zuten une artatic bertatic betico su-gar edo pena icaragarriyetan daduzcalaco; bada beren esquergabequeriya, pecatuba eta lotsagabequeriya guchiyagotaraco etzan.

G. Cer guerra da Jaungoicoari eguiten diyotena?

E. Quentzen diyozcate bere sorbitzari edo adoratزالleac munduban, baita ere eguiñala guciyan aztuacitzen dute beraren icena.

G. Nola eguiten dute ordea guerra ori?

E. Munduco gaiztoen bidez.

G. Satanas eta bere lagunac ¿cergatican icusi eciñ dituzte animac?

E. Arrazoi bigatic: bata da, Jaungoicoac bere antzera eguiñac diralaco: eta bestea da, ayec ceruban izan bear cituzten jar-lecu ederrac eta botico gozotasunac arrapatzen diztelaco.

G. Eta animac galtzeco ¿cer eguin oi dute?

E. Ipintzen dituzte gaiztaqueriaren sareac, eta ciricatzen dituzte personen griña charrac.

G. Deabrubac orduban liberal aundiyc dira?

E. Bai, alassen dira: bada Jaungoicoa adiñacoac nai izateaz gañera, dabiltz beti Jaungoicoari aleguiñean guerra eguiten, eta munducoai gaitzeraco libertadea esqueñtzen.

G. Liberal aundi oyetan gaiztoena, gogorrena, eta beste guciyen nagusiya becela ¿nor da?

E. *Satanas.*

G. ¿Cergatican bada?

E. Da gaiztoena, bere lagunac liberaldu edo gaiztotzeco bidea berac

eman zualaco: da gogorrena, oquerrie
aundiyenac eguiten ditualaco: eta da
azquenican, lengo eta oraingo liberal
guciyen nagusiya becela, guciyac bere
mendea daduzcalaco, beste aimbeste
soldadu balitu beclassa.

G. Cer oquer dira Satanasec berez
eguin izan dituanac?

E. Adam eta Evari berac eraguin
ciyen pecatu, loitzen guinduala era
orretara, Ama Birgiña ez, beste mun-
dutar guciyac pecatu jatorrizcoarequin:
gueroenean bera izandu zan Jesucristo
gure jauna ere iru biderretaraño tentatu
zuana, bañon alferrie: baitaere azque-
nic San Pedro edo Elizaren cimenduba,
au da, Aita Santutza deseguin nai izan
zuan Satanas berac eta gure Salbatza-
lleac utzi etziyolaco deseguin etzu-
an.(1)

G. Satanas gaiztoac nolatan daduz-
ca liberalac bere mendea?

E. Gaitzeraco libertadea gauza óna,
eta Jaungoicoaren leguea uztarri pisu-
ba dirau iduripen zoroarequin.—Adam
eta Eva menderatu cituan, Jaungoicoac
debecatu ciyen arbolaco fruta ayec

(1) Luc. cap. 22, vs. 31 et 32.

ónac, ederrac eta atseguingarriyac ciralara sinistarazten ciyela: eta ori bera da gaur ere eguiten duana, liberalac bere mendean iduquitze: sinisterazten diyo Elizac debecatzen dizten opiniyo eta dotriñac dirala ónac, onragarri eta prochugarriyac: eta orrequin guero Satanasec, liberalac lagun dituala, eguiten diyo Jaungoicoari guerra, erlijioa guchitubaz eta animac galdubaz berac dezaqueneraño.

G. Liberalqueriya beraz ¿cer dala esan diteque?

E. *Satanasen bandera.*

G. Cer diyote eliz-guizonac gai onezaz?

E. Salamanca-co obispo jaun aundi batec ara cer esribitu zuan: «*Liberdadea gairqui artzea, esan diteque dala liberalqueriya: eta eracutsi ciguten ori Luciferrec, alchatzen zala ceruban Jaungoicoaren contra; eta Adanec, leguea austen zuala lurreco paradisuan.*» (1)

G. Vitoria-co obispo Jaunac eta bere lagunac, len aitatu zan gaceta edo carta artan, eracusten aldute gai ori?

E. Obispo oyec arguiro adierazten

(1) Episc. Salm. *Lluc* in epist. ad. parochum.

dutenez, lenengo liberala «etzan izan guizona, izan zan munduba oquertu zuan aspaldico suguea, aingueru gaiztoa....Aingueru gaiztoac tentatu zuan Adam paradisuan Jaungoicoric gabeco eta Jaungoicoaren contraco jaquinduriyarequin: da au, nai dana pentzatzeco libertadca becela; eta benzutu zuan Adam.»

G. Pecatu eguiten duan guciya ere beraz liberala da?

E. Nolerebait, au da, izatez edo obraz, bai, ala da.

G. Cergatican?

E. Pecatu eguiten dan guciyan *gañeguiten* zayo Jaungoicoac emandaco *libertadeari*; ez bada beti itzez, bañon bai obraz Jaungoicoari ala esaten zayo: *Non serviam*: (1) au da, Jaungoicoaren legueric bear ez det nic orain; onetan serbituco ez det nic bera.

G. Liberalqueri ori alda debecatzen dana gaur Elizaco leguean?

E. Ez; bada personaren bicimoduco gaiztaquერიყac edo pecatubac, Elizaren debecu herriya gabe ere, lendican guenduzcagun debecatuac Jaun-

(2) Jerem. cap. 2, v. 20.

goicoaren leguean.—Gañera: liberalqueriya, len esan danez, biotzeco gaitza bañon gueyago da burucoa; au da, liberalqueriyan ez dira aimbeste sartzen personaren bicitzaco utseguiteac, edo argaltasunaz eguiten diran pecatubac, nola erlijiyoaren contraco charqueriyac, edo *setaz* iduqui nai diran dotriña edo opiniyo gaiztoac.

G. Eta liberalqueriya *oso-osoan* edo bere zabalera guciyan artzen dala, cer adierazten da icen orrequin?

E. Adierazten dana da: *erlijiyoaren gayetaraco*, edo animari dagozquiyon gaucetaraco, *libertadea*: da, erlijiyo eguiyazcoaren contraco *erocer* dotriña, opiniyo edo errebesqueriya: eta itz batean esateco, liberalqueriya da, gure *arrazoya* edo guerenezco ezagüera *iñoren mendean ez iduqui naya*, sinistubaz erlijiyoco gayan bacarrie gueroc derizquiyoguna.

G. Cer diyote obispo jaunac gai orrezaz?

E. Vitoria-co obispo jaunac eta bere bost lagunac ala diyote: «liberalqueriya bere izatez izango da beti cristauhen fedea sustraitic ucatzea, dala nabarmen edo dala zomorrequiro»—Sala-

manca co obispo jaun aundi arc berac berriz, ala diyo: «dotriña guezurti guciyac, beren artean desberdiñac eta contracoac badira ero, talde aundi bat eguiñic biltzen dira gaur liberalqueriyaren banderapean.» (1)

G. Liberalac dira orduban juduac, protestanteac, eta catolico ez diran guciyac?

E. Bai, ala dira, catolicotasuna jaquiñaren gañean despreciatzen badute.

G. Cergatican bada?

E. Jaungoicoaren ordecoa da munduban catolicotasuna edo Erroma-co Eliza, alguacilla edo erri zaintzallea alcatearen ordecoa, baitaere illarguiya gabaz eguzquiyaren ordecoa diran becelasse: catolicotasuna despreciatzea beraz, Jaungoicoa despreciatzea adiñasse da: eta Jaungoicoa despreciatzea berriz, bere mendetic irten nai izatea, edo liberalqueriya da.

G. Nola daquigu ordeca catolicotasuna Jaungoicoaren ordecoa dala?

E. Jaungoicoac osoro utziyac gauzcala esan bear ezpadegu, erlijiiyoren bat badá munduban eguiyazcoa edo

(1) Eadem epist. ad parochum supra dicta.

Jaungoicoarena: eta erlijiyo guciyetan catolicotasuna da eguiyaren ichurac dituana, edo Jaungoicoari dagoquiyona; bada Erroma-co Eliza dan baño zuce-nagoa, garbiyagoa eta ohea eciñ izan liteque: catolicotasuna beraz Jaungoicoaren ordeaz daducagu munduban.

G. Jaungoicoac ez ote gauzca guero mundutar guciyoc alde batera utzita?

E. Ori esatea, guciyoc nai edo ez infernuraco gauzcala esatea becela da; eta iñola ere ez dagoquiyo ori Jaungoicoaren ontasunari:edo nola nai ere beintzat, lengo dembora zarretan Jaungoicoac beguiratzen zuan erlijiyo eguiyazcoa osoro galdu etzediñ munduban, eta eguingo ez du gaur guchiyago; bada Jaungoicoa beti lena da, eta bereac ere gaitu.

E. Eta munduban danden erlijiyoe-tatic bat bacarra alda eguiyazcoa?

E. Bai, ala da.

G. Cergatican?

E. Erlijiyo guciyac desherdiñac eta alcarren etsayac dira: bat edo bat eguiyazcoa dala beraz, beste guciyac oquerac edo guezurrezcoac izan bear dute.

G. Erligiyoraco libertadea ote da bada liberalqueriyaren icenarequin gaur

debecatzen zaiguna?

E. Ez, ezta.

G. Cergatican ez?

E. Erlijiyoaren contra *zucenean* di-
joacen dotriñac eta errebesqueriyac, le-
nagotican guenduzcagun debecatubac
icen desberdiñ ascorequin, nola diran
erejiya edo fede austea, protestanteque-
riya, masoiqueriya, eta beste asco: li-
beralqueriyaren icena eta debecuba iza-
nican ordea berriyac, edo gure egune-
tacoac, esagun-esagun da beraz, beste
cerocer dala gaur icen orrequin debe-
catzen zaiguna.

V.

Gai-bera.

Galdera. Cer aditzen da bada gaur
liberalqueriyaren icenarequin?

Erantzuer. Aita Santu Pio bede-
ratzigarrenaren eta beste eliz guizon as-
coren aoan liberalqueriya da: *Josucris-*
toren Eliza aultzeco, baita ere albalitz
bera deseguiteco, zomorroqueriya. (1)

G. Cer zomorroqueri da ordea ori?

E. Eliza zucenean edo nabarmen-

(1) Alloc. *Sanctudum cernimus*, 18 Martii 1861.—
Epist. supra dicta episc. dom. *Iluc.*—Etc.

debecatzen zaiguna?

E. Ez, ezta.

G. Cergatican ez?

E. Erlijiyoaren contra *zucenean* di-
joacen dotriñac eta errebesqueriyac, le-
nagotican guenduzcagun debecatubac
icen desberdiñ ascorequin, nola diran
erejiya edo fede austea, protestanteque-
riya, masoiqueriya, eta beste asco: li-
beralqueriyaren icena eta debecuba iza-
nican ordea berriyac, edo gure egune-
tacoac, esagun-esagun da beraz, beste
cerocer dala gaur icen orrequin debe-
catzen zaiguna.

V.

Gai-bera.

Galdera. Cer aditzen da bada gaur
liberalqueriyaren icenarequin?

Erantzuer. Aita Santu Pio bede-
ratzigarrenaren eta beste eliz guizon as-
coren aoan liberalqueriya da: *Josucris-*
toren Eliza aultzeco, baita ere albalitz
bera deseguiteco, zomorroqueriya. (1)

G. Cer zomorroqueri da ordea ori?

E. Eliza zucenean edo nabarmen-

(1) Alloc. *Sanctudum cernimus*, 18 Martii 1861.—
Epist. supra dicta episc. dom. *Iluc.*—Etc.

quiro perseguitu bearrean, gaitzaren ichura aundi gabe edo *cearrean* perseguitzea.

G. Eta noiz edo nola perseguitzen da *cearrean* Eliza?

E. Berari eraso eztaere, zor zayon *laguntasuna quendu edo ez emanarequin*.

G. Nola alдитеque ori?

E. *Politica* gaiztoaz baliyatuta: argatican liberalqueriya, estu-estuan artzen degula, *politica* gaiztoa besterican ez da.

G. Cer ganza da politica?

E. Icen orrec euzcaraz *erriyaren gobernuba*, edo erri-gobernatzea, esan nai du: boragatican politicaz aditu bear dana da, erriyac gobernatzeco jaquinduriya edo mañá: eta are egoquiyago esan nai bada herriz, politica degu gendetzac edo *sociedadeac zuentasunean* guidatzea, au da, Jaungoicoac nai duan erara.

G. Cergatic ori?

E. Jaungoicoac bereac ditu persona *guciyac*, bai eren bacarrean, nola alcar-gana *bildurican*; beraz erregue eta bestelaco aguintariyac, baita ere gende billera edo *sociedade* modu *guciyac* Jaungoicoaren mendean daude: eta beraga-

tican, zucen edo ontasunean ezpada, ibilli bear ez dute.

G. Politica noiz izango da bada gaiztoa?

E. Jaungoicoac emandaco leguearen conturican ez duanean; edo legue orrezaz beste aldera dabillenean; eta are obeto esateco, erriyac edo gendeac naidan erara gobernatzeco *libertadea* artzen danean.

G. Contu oyetan beraz ¿cer da *liberalqueriyaren icenarequin* Elizac gaur debecatzen duana?

E. Ez besterican: *politicaraco libertadea*: au da, gende-billera edo societadeac, Elizaren aguimbidea aintzacotzat artu gabe gueron iritzira bacarrican gobernatu naya: degu liberalqueriya, *gende-arteraco sar-bidea eta laguntasuna* Eliza ama santari quendu edo ucatzea: da, erriyac Jaungoicoaren eta *betico bicitzaren* conturic gabe guidatzea: da, Egipto-co erregue Faraon gaiztoa becela, Jaungoicoaren erriya edo Eliza bere mondean eta osoro azpiyan iduqui nai luqueana, aberastusunac eta gende arteraco escubideac quendu eta ordañaz arlotequeriya eta nequea besterican uzten ez diyozcala,

esanaz lotsagabequeri anndiyarequin: *Jaungoicoa ezagutzen ez det nic eta bere erriyari utzico ez diyoc* catibutasunetic irteten: (1) eta itz batean esateco, liberalqueriya da azquonean, *politica gaiztoa*.

G. Eta nundic edo nola daquigu orain esan dan liberalqueri ori dala Elizac icen orrequin debecatzen diguna?

E. Aita Santubac eta Obispo jaunac daquite onguiyena estu-estuan liberalqueriyaz cer aditu bear dan; eta berac diyote icen orrequin politica gaiztoa aditu bear dala.

G. Aita Santubac nun diyote ori?

E. Pio bederatzigarrenac ara cer escriptu ciyon Quimper esaten dan lecuco obispo jaun bati: «Eracutsi ezazu, nere anai beneragarriya, opiniyo liberalaquicoai sarri erriertan eman diyetenoan nic, ez dedala itzeguin nai izandu Elizaren etsai nabarmenacgatic, bada alferric izango zan; baicican opiniyo liberalac ontzat daduzcaten *catolico onradu eta elizacoyac-gatic*, bada oyec dotriña liberalai eusten diye, gaizta-

(1) *Enod.* cap. 5, v. 2.

queri nabarmenic ez dutenean, erlijiozko gantzai eceren calteric eguiten ez diyotelacoan. (1)

G. Cer besterican diyo Aita Santu orrec?

E. Orain amazazpi urte ara nola itz-eguín zuan Francia-tic bera icustera joan zan gende-pilla baten aurrean: «Jaungoicoric ez balitz becelaco legue-ematea, erlijioaren gayetaraco arduragabequeriya, *catolico-liberalac* deritza-yoten dotriña caltegarriyac, ona emen, ona emen, cerc galdu dituan erriyen izate edo Gobernubac, eta cerc ondatu duan Francia.» Eta guero tristura aundi eta aserre santu batequin ala ciyon. «Beti debecatu izan det *catolicoen liberalqueriya*, eta bear balitz, baita ere berroquei bider debecatuco nuque bera.... Jaungoicoa-gandic urrutidabillen *politica zori gaiztoco ori* da nic gueyena gorrotatzen dedana.... Ori da Gobernubetan erlijioa deseguiten duana eta erregueen jar-lecubac berac botatzen dituana.» (2)

G. Eta obispo jaunac cer eracusten dute?

(1) *Brev.* 28 Julii ann. 1873.

(2) *Alloc.* 18 Junii 1871.

E. Esan dana ber-bera. — Plasencia-
co obispo celotsuac orainche iru urte
eta ordi, ala cion. «Liberalen politica
bere izatez catolicotasunaren etsaya da...
politica liberala esatoa gaiztoa, naspilla-
tzallea eta catolicotasunaren contracoa
esatoa adiñasse da, eta erriyetaco fe-
dean eta oitura onetan calte aundiyac
eguiten ditu.»

G. Vitoriaco obispo jaunac beste
hosterequin eguin zuan carta egoqui
artan ¿cer iracurtzen ote da gai orrezaz
beraz?

E. Liberalqueriya da, carta orren
esaeran, *guerenezco* edo erlijijoric gabe-
co *politica*.

G. Cer besterican iracurtzen da car-
ta orretan?

E. Ceatzen dira lengo itzac esanaz,
liberalqueriya dala «dotriña bat lurre-
co gauzac cerucoetatican guchi edo
gueyago apartatu eta alcarren arteco
icusquizon gabe uzten dituana; dala
erriyac gobernatzeco gayan fedeaz bes-
te aldera ibiltzea, Elizaren dotriña eta
legueac aintzacotzat artu gabe. Eguiya
da liberalqueriyaren malla guciyac
berdiñac ez dirala; bañon contuz begui-
ratzen duanarentzat, baita ere eguiya

da, guchi-asco malla guciyac darama-
tela beren errayetan aguimbidea eta
sociedade edo gende-billera erlijiyo
gabe uztea. Zomorroa izanie liberal-
queriya, pisscabanan aguertzen da, on-
doena nola datorquiyon; cristau-erri-
yetan arpeguiz-arpegui erasotzen ez
du, daquilaco ongui fedea galdu ez dan
lecubetan nabarmenquiro aguertu eciñ
ditequeala.»

G. Ecuador-co zazpi obispoac al-
carren artean esribitu zuten carta arc
¿cer esaten du?

E. Beste gauza chit egoqui ascoren
artean, liberalqueriya dala, diyo, do-
triña bat «Jaungoicoagandic Elizae
duan aguimbidea issillican edo nabar-
menquiro ucatu, eta eracusten duana
Eliza beraren gañean dagoala Gobernu-
ba.... Dotriña gaiztocoai politican icho-
ton diye Satanasec, ayec lagun dituala
Jaungoicoari eta onen Elizari guerra
eguiteco.... Catolicoen liberalqueriya
da, infernutic irten eta Eliza catolica-
ren baratzen issillic sartu dan sugue
marrajoa, lenengo sugueac paradisian
eguin zuana gure egunetan ero eguin
dezan zomorroquiro.»

G. Nola esaten da bada erlijiyoac

politicarequin eguitecorican ez duala?

E. Gaizqui esana da ori.

G. Cergatican bada?

E. Ecercho ere ez da Jaungoicoaren mendean egon bear ez duanic; gendearen gobernubac edo politicae ere beraz ala egon bear du: bañon Jaungoicoaren mendean egoten erlijiyoac eracutsi bear du; erlijiyoa beraz politica-*ren eracustea* da: eta argatican gaizqui itzeguiten da erlijiyoac politicarequin eguitecorican ez duala esaten danean.

—Gañera: personen obra guciyac, Jaungoicoaren leguez erara, au da, gaitz gabeac edo ónac izan bear dute; politicae ere beraz, *personen obra* becela, óna edo gaitz-gabea izan bear du: óna izaten ordea erlijiyoa-gandic icasi bear da; ontasunetic irtengo ezpada beraz politica, erlijiyoac *guidatu* bear du bera, animac gorputza edo cerubac lurra guidatzen duten becela.—Erljiyoaren eguitecoa beraz, politica *saintzea* da, beti zuentasunean ibilli dedin; eta orretaraco eman nai diyo dotriñaren arguitasuna, eguzquiyac illarguiyari ematen diyon eran.

G. Erljiyoa eta politica beraz, anima eta gorputza, ceruba eta lurra,

eguzquiya eta illarguiya becela ditugu?

E. Bai, alassen ditugu: eta beragatican, gorputza animaren mendean eta lurra cerubaren azpiyan dauden becelasse, politicac ere egon bear du erlijioaren azpiyan edo mendean; eta illarguiyac pocie artzen badiyo eguzquiari bere arguiya, baita ere politicac atseguin aundiz icasi bear du erlijioa-gandic zuentasunaren dotriña.

G. Cergatican ordea politicac egon bear du erlijioaren mendean edo azpiyan, eta ez contrara?

E. Jaungoicoac nai duanez eta icusten denez, chiquiyagoac aundiyagorenen mendean eta beecoac goicoaren azpiyan egon bear dute; erlijioa bañon chiquiyagoa eta beeragocoa da politica; beraz onec egon bear du erlijioaren mendean eta azpiyan, eta ez erlijioa politicaren azpiyan eta mendean. Oliyoa beti uraren gañean dagoan becela, urac oliyoa inolaero azpiratu ecin dala; era berean egon bear du erlijioac politicaren gañean, eta politicac erlijioaren azpiyan.

G. Eta nola daquigu erlijioa bañon chiquiyagoa eta beeragocoa dala politica?

E. Politicac berez gorputzen eta lurreco zorionaren contuba du; erlijioaren contura berriz, animac eta betico bicitza daude: eta edoceneac daquiyanez, gorputzac eta lurreco zoriona, animac eta betico bicitza bañon ascoz guchiyago dira: politica beraz erlijioa bañon ascoz guchiyago baita.

G. Erlijioac eta politicac alcarri lagundu bearco diye bada beren eguitectoetan?

E. Bai, animac eta gorputzac beren eguinquizunetan alcarri laguntzen diyoten becelasse.

G. Liberalqueriyac gaizqui eguiten du beraz erlijioa eta politica alcarrendic apartatzearequin?

E. Osoro eguiten du gaizqui; bada alcarrequin izateco eta batac-besteari beguiratu eta laguntzeco eman cituan Jaungoicoac erlijioa eta politica.

G. Gor irudi jarri leique liberalqueriyaren gaitza are obetogo adierazteco?

E. Cain gaiztoarena.

G. Nolatan bada?

E. Cain gaizto arc icusi eciñ zuan becela Abel bere anai óna, liberalqueriyac ere, edo politica gaiztoac, erlijioa icusi eciñ du: arc ill bazuan bere

anaya, baita ere liberalqueriyac erlijioa deseguin nai luque, eta ori eciñ dualaco, necarazten du bera eguiñala guciyan: Cain odol-zalcac bere anaya salduqueriyaz ill zuan, au da, lagun maitea zuan aitzakiyarequin bacardadera eraman eta guchiyena uste zanean erasotzen ciyola; eta era berean liberalqueriyac, marrajoa izanic, len esan denez, cristau-erriyetan beintzat falsaqueriyaz ezpada erasotzen ez diyo Elizari, au da, gaitzic baterere nai ez baliyo becela, eta lagun maitea duan papera eguiñaz itz eder eta modu gozoaquin: eta Cain lotsagabeac azque-nican, bere anayarequico contuba arena etzala erantzun baciyon Jaungoari; baita ere liberalqueriyac antz orretara erantzuten du, erlijioarequin eguitecorican ez duala diyonean.

G. Liberalqueriya beraz bigarren Cain becela degu?

E. Bai, alassen degu; eta Abel berriya Jesucristo gure jauna da, eta nolerebait beraren esposa Eliza santa ere bai.

VI.

Liberalqueriya debecaturican dago.

Galdera. Liberalqueriya debecatua egoteac ¿cer esan nai du?

Erantzuer. Esan nai duana da, Jaungoicoarequico icusquizunican nai ez badegu, *jaquiñaren gañean* liberalac izan bear ez degula.

G. Noiz da bat liberala jaquiñaren gañean?

E. Liberalqueriyaren gaitza, edo beraren contra Elizac daducan debecuba ezagutu, eta ala ere liberalqueriyan jarraitzen duana.

G. Liberalqueriya debecatuba ote dago guero?

E. Bai, ala dago.

G. Nun iracurtzen da debecu ori?

E. Jaungoico gure jaunaren leguean, eta ez guchiago Aita Santuben eta obispo jaunen aguriyetan.

G. Jaungoicoaren legueac ¿cer diyo bada?

E. Diyona da: *gaitzetik apartatu* edo *alde-eguiteco*. (1)

(1) Ps. 93. v. 15 et 96. v. 27.

G. Cer esan nai du ordea orrec?

E. Esan nai du, gauza gaizto guciya erocer dala, utzi dezagula: eta oso-ro gauza gaiztoa izanic liberalqueriya, icusi danez: baita ere beraz liberalque-riya utzi bear dala.

G. Jaungoicoaren legue ori inun dago ezarriya?

E. Bi locubetan: bata da, gure bio-tza edo guerenezco ezagüera; bada inorc esan ezta ere badaquigu gaiztaqueriya-ric eguin bear ez dala: eta bostea da, *Escriptura sagradua* deritzayon liburu-sorta.

G. Liburu santu oyetan liberalque-riyaren beste debecuric iracurtzen ote da?

E. Bai, iracurtzen da.

G. Cer iracurtzen da, bada?

E. Ona eta gaitzaren jaquinduriyaco arbolaren frutaric ez jateco, eta arbo-la ori bera *ez icutze*co: (1) eta liberal-queriya izanic, esan degunez, ona eta gaitzaren jaquinduriyaco arbola bat becela: liberalqueriyaren fruta edo do-trinari beraz artu bear ez da: eta libe-ralqueriya bera icutu bear ere, ez da:

(1) *Genes*, cap. 3. v. 3.

edo itz guchiyagotan esateco, liberalqueriyaren cutsurican ere nai bear ez degu.

G. Eliza ama santac liberalqueriya debecatzece, ¿cer aguimbide eman izandu ditu?

E. Bata da beintzat, len aitatu dana: au da, *Syllabus* edo dotriña eta opiniyo debecatubaquico listá.

G. Listá orretan ¿cembat dotriña edo opiniyo gaizto daude?

E. Laroguei.

G. Eta ayen artean aldago liberalqueriya?

E. Bai, ala dago, eta larogueigarren lecuban alaere: eta beraicican becela dago azquen-azqueneco chandan liberalqueriya, guc obetogo icusi guentzagun.

G. Catolico-liberalac ¿nola icusten ez dute bada?

E. Nai ez dutelaco icusten ez dute: bada ain dira seta gaizto edo tema aundicoac.

G. Aldaquite ordea esan dan listá edo *Syllabus* ori badana?

E. Escola duten liberal guciyac, esateco, badaquite arguibide ori badana: beragatican *Syllabus* aitatzeare-

quin bat, izutzen dira eta beguirune beltza eguiten diyote. —Escola aundiric ez duten liberaletatican ore, gueyenac edo ascoc, aztarrena atera dute, liberalqueriya debecatuba dagoala, bañon lengo bideai uzteco asmorie artzen ez dute.

G. Liberalqueriyaren beste debecuric ote dago Elizaco arguimbideetan?

E. Baten lecuban asco.

G. Eta debecuric nabarmenena ¿cer paperetan dago?

E. *Quanta cura* deritzayon carta osoro sonatu batean.

G. Corgatican du orrelaco sona carta orrec?

E. Arrazoi bigatic betecere: bata da, *Syllabus* edo esan dan listarequin batera, eta berari itsatsiric becela eman zalaco: bestea da, liberalqueriyaren gañora, euri-zaparradaren guisa, mardaricaciyo asco botatzen ditualaco.

G. Cer itzetan dacar bada carta orrec liberalqueriyaren debecuba?

E. Itz astun eta erabaquitzaile oyetan: «Carta onetan cearo gogoraci ditudan *opiniyo eta dotriña* biyurri *guciyac* eta beretaco *bacoitza* gaiztotzat eta galdutzat ematen ditut eta *debecatzen* ditut

nic daducadan *apostoloaren aguinbi-dearequin*; baita ere nai det eta *aguintzen det* Eliza catolicaren ume *guciyac* oponiyo eta dotriña oyec berac, gaiztoztat, galdutzat eta *debecatutzat* iduqui ditzeela *osoro*.» (1)

G. Da esatea ece *apostolotasunaren* indarrez *aguintzen* zaigula *guciyoi* liberalqueriya ere *osoro* uzteco?

E. Ori da arrazoya! bada esan dan carta orretan liberalqueriyari dagozquiyon dotriña eta opiniyoaz bestezaz itzeguiten ez da: eta gainera, *Syllabus* carta orri berari itsatsiric becela eman zalaco, orain esan dan debecuba *Syllabus-en* aitatzen diran opiniyo eta dotriñetaraño zabaltzen da, liberalqueriyaraño ere beraz bai.

G. Esan diran debecu oyec gñorc emanac dira?

E. Aita Santu Pio bederatzigarrenac.

G. Liberalqueriyaren beste debecuric eman alzuan Aita Santu orrec?

E. Orain amasei urte, mundu gucico obispo jaunac bere ondoan ceduzcala, beste dotriña eder batzuen artean

(1) Encycl. *Quanta cura*, sect. 6.*

ara cer eracutsi zuan: Fedeausteco gaitzetic apartatzea ez da asco, fedeaustera guchi edo gueyago urreratzen diran utseguiteac uzten ez badira: beragatican catolico *guciyac* contuban jartzen ditut *beartubac dandela*, opiniyo gaiztoac debecatu eta galtzeco Aita Santubac eman izandu dituzten legue eta erabaquiyac gordetzera. (1)—Catolico guciyoc beraz liberalqueriya eta bere dotriña gaiztoac uztera beartubac gaudede; bada fedeaustera urreratzen diranac izateaz gañera, berac debecatzeco Aita Santubac legue eta erabaqui asco eman izandu dituzte.

G. Liberalqueriyaren contra ascotan itzeguiten ote zuan Pio bederatzi-garrenac?

E. Orain amabost urte, Alemaniaco, Italia-co, Belgica-co eta Francia-co catolicoai, sei illebeteren barruan bacarric, bost carta escribitu cizten. (2)—Gueroenean ere, naiz cartaz, edo naiz itzez, erac eman ciyon guciyan debecatu oi zuan dotriña madaricagarri ori; eta beti *aserre* santu batequin, berez

(1) Conc. Vatie. Const. *De Fide* in fine.

(2) Vide opusc. *Segur* denom. *Hommage*.

añ *biotz beraa* bazan ere, erocēñec da-
quiyanez.

G. Aita Santu orrec berac ¿cer ice-
nac ezarri oi ciyozcan liberalqueriya-
ri, onen gaitza adieraci nairic?

E. Batzuetan *ezcutuco puzoya* otse-
guin oi ciyon: bestetan herriz peste edo
izurriric caltegarriyena: eta beste icen
asco uzten dirala, gueyenean ala esan
oi ciyon: *etsai gaitoa*, *etsai nabarmena*
bañon oquerragoa eta peligrotsuagoa. (1)

G. Cergatican eman oto ciyozcan
liberalqueriyari esan diran icen oyec?

E. Eracusteco guri, puzoya, izu-
rriya eta etsaya, gorputzeraco eta bici-
tzaraco diran becel-becela, osoro galga-
rriyac, dala ere liberalqueriya anima-
raco eta erlijijoraco.

G. Pio bederatzigarrena, esan diran
contubetan, *liberalqueriyaren mazoa* be-
cela izandu zan?

E. Bai, alassen izandu zan; aurre-
co demboretan san Atanasio aundiya
arrianoen malluba, eta Jesusen Compa-
ñiya edo jesuitac, *protestanteen azotea*
izandu ciran becela.

G. Eta oraingo Aita Santu Leon

(1) Vide opusc, supra dict. *Hommage*.

amairugarrenac ontzat ematen ote ditu bere aurrecoaren dotriñac?

E. Bai orisse.

G. Probatu bezait bada.

E. Aita Santutzara igo eta bi illabete baña len, obispo jaun guciyai escribitu ciyen carta ederrean, ala diyo: «Nere aurreco Aita Santuben bideac berac jarraitzen ditudalarican, oyec dotriña gaiztoen contra ipiñi cituzten *debecu guciyac* ontzat eman eta *berritzen ere ditut apostolotasunetic* datorquidan aguimbidearequin.» (1)

G. Osoro bat daude beraz bi Aita Santubac?

E. ¡Egongo ez dira bada! Aita Santu guciyac dirade bat dotriña cristau guciyontzat eracusten dutenean.

G. Eta iru urtez onuztic eman etzuan Aita Santubac bulla aundico beste carta bat?

E. Bai, eta gaurco mundubaren premiyetaraco osoro da egoquiya.

G. Eta liberalqueriyaren contra al-dacar ecorere?

E. Besterican ez.

G. Cer dacar bada?

(1) *Encycl. Inscrutabili Dei*, die 21 Aprilis ann. 1878.

E. Beste gauza chit ascoren artean, ala diyo: «neurri gabeco libertadea berez, ez da gendea eguiyaz poztu bear luquean ondasuna, baicican gaitz ascoren iturriya eta sustraya da.... Bacarric bicitza óna da, gu guciyon errira, cerura, daraman bidea; beragatican, eguiyaren eta birtutearen caltean, nai dana pensatu eta eguiteco *libertadea* uzten duan Gobernu guciya, gaizqui dijoa..... Jaungoicoaren legue chit santubac despreciatzea, eta leguezco agnimbideari zor zayon obedienciya ucatzera dijoan *libertadea* eciñ ontzat eman dezaque Elizac. Libertade ori, libertadea bañon gueyago da, *lasaiqueriya*, eta san Agustíne zucen deritzayo berari *galeraraco libertadea*, eta san Pedroc *gaiztaqueriyaren estalquiya*. (1)

G. Cer dacar gueyago carta orrec berac?

E. Pio bederatzigarrenac, catolico-en gobernuraco, *opiniyo falsoaquin* eguin zuan listá edo *Syllabus* ontzat eta *egoquitzat* ematen du, eta gañera ala diyo: *opiniyoen gañean gauza bearra da Aita Santuben esanetara umilquiro*

(1) *Encycl. Immortale Dei opus*, die 1 Nov. 1885.

jartzea, baitaere sinisten da hura bera *erocenean aurrean aitortzea* erac ala escatzen duan guciyan. Eta gaurco egunean billatzen diran *libertadetan ere* catolico guci-guciyac Aita Santubaren esanean egon bear dute, sinistubaz ba-coitzac Aita Santubac berac sinisten duan hura berá. *Beguirá contuz, libertadeac beren ichura onaquin inñor enñagatu ez dezaten.*» (1)

VII.

Gai-bera.

Galdera Liberalqueriyaren beste debecuric ote da?

Erantzuerá. Erroman dauden eliz-tribunal zorrotzenetaco batec, joan zan urteco illbeltzean eman zuan epaya liberalqueriyaren debecu berri bat da, aintzacotzat ez badaucate ere berá catolico-liberal setotsubac.

G. Cer tribunal da aítatu dan ori?

E. Aita Santubaren ordeaz eta berran icenean liburubetaco dotriñac icusi eta juzgatzeco aguimbidea duana.

G. Eta cer erabaqui zuan aurreco urtean tribunal orrec?

(1) Vide eamden Encycl. *Immortale Dei*.

jartzea, baitaere sinisten da hura bera *erocenean aurrean aitortzea* erac ala escatzen duan guciyan. Eta gaurco egunean billatzen diran *libertadetan ere* catolico guci-guciyac Aita Santubaren esanean egon bear dute, sinistubaz ba-coitzac Aita Santubac berac sinisten duan hura berá. *Beguirá contuz, libertadeac beren ichura onaquin inñor enñagatu ez dezaten.*» (1)

VII.

Gai-bera.

Galdera Liberalqueriyaren beste debecuric ote da?

Erantzuerá. Erroman dauden eliz-tribunal zorrotzenetaco batec, joan zan urteco illbeltzean eman zuan epaya liberalqueriyaren debecu berri bat da, aintzacotzat ez badaucate ere berá catolico-liberal setotsubac.

G. Cer tribunal da aitatu dan ori?

E. Aita Santubaren ordeaz eta bera-
ren icenean liburubetaco dotriñac icusi
eta juzgatzeco aguimbidea duana.

G. Eta cer erabaqui zuan aurreco
urtean tribunal orrec?

(1) Vide eamden Encycl. *Immortale Dei*.

E. Gauzaric baliotsuenetatic bat, eta da: *El liberalismo es pecado* deritzayon liburuchoa, *ondo eta betaz icusi zuala*; bañon dotriña onaren *contra ecerere* arqitu etzuala bertan; baicican beraren *escribatzalleac alabanza mere-ci duala*, eracusten dualaco *dotriña ona* sinisgarri sendo, egoqui eta arguiya-quin, personen contraco errechinqueri-ric batere gabo. (1)

G. Cer besterican erabaqui zuan tri-bunalac?

E. Erabaqui zuana gañera da: orain esan dan liburuchoa *contra* escribi-tu zan beste liburuchoa, *El proceso del Integrisimo* icena duana, cerocertan *zu-cendu bearrecoa* dala, eta bere escri-bitzallearen itzeguiteco modu miñga-rriya *eciñ onizat eman ditekueala*, itz-eguiten dualaco, ez dotriña oquerren contra, bada aurrena aitatu dan libu-ruchoan dotriña oquerri-ric ez dago, bai-cican aren *escribitzalle jaquintsu eta birtutetsubaren* contra. (2)

G. Ez aldiyo beste gauzaric ceatzen ari gueran epai orrec?

(1) Vide epist. Secret S. R. Congr. Indicis, die 10 Januar. ann. 1887.

(2) Vide epist. supra dictam Secret S. R. Congr. Indicis.

E. Esan dana asco ez balitz bece-
la, ara cer diyon gñera: Beragatican
aguindu du tribunal ouec, *El proceso*
del Integrisimo escribitu zuana bere
obispoac contuban ipiñi dezala, *ezcuta-*
tu ditzan aleguñean esan dan iceneco-
bere liburnbac. (1)

G. Eta esan diran bi liburnchoac
norc eraman ote cituan Erroma-co tri-
bunal zorrotz artara?

E. Catolico-liberalac berac eraman
cituzten, eta inore beartu gabe alaere.

G. Cer asmonequin ordea eraman
cituzten?

E. Lenengo esan dan liburu óna,
El liberalismo es pecado, tribunalac
gaiztotzat edo guezurtitzat debecatuko
zuan ustean; beste liburuba herriz, *El*
proceso del Integrisimo, dudarie gabe on-
tzat emango zalacoan.

G. Errebes irten ciyen beraz catolico-liberalai beren jocubac?

E. Eciñ da errebesago; guertatzen
citzatela bi erbi batera atzitu nayan da-
billen eiztariyari guertatzen zayona
bera.

G. Cer bada?

(1) Vide eandem epistolam.

E. Ez bata eta ez bestea atzitzea: au da: nai cituzquen bi gaucetatic batere ez izatea.—Eta are oquerragoa dana, tiroac atzecoz aurrera catolico-liberalac berac arrapatu cituan, debecatzzen zala berac ontzat ceducaten liburuba, eta madaricagarritzat ceducaten berriz, tribunalac osoro ontzat ematen zuala.

G. Tribunalaren epai ori guezurtatu etzan bada gueroonean tribunal arc berac emandaco erabaqui berri batequin?

E. Bai nai catolico-liberalac, eta eguiñala ere eguiñ zuten gauza orren atzetican, baita ere eguiyaz epai berriya irichi zuten, bañon beren ealtean.

G. Cergatican bada?

E. Bigarren epayac, len esandaco gauzaric batere guezurtatzen ez dualaco; eta bai berritzen ditualaco, *El Liberalismo es pecado* liburuchoaren alde, aurreneco epayan eman ciran alabanza ayec berac.

G. Probatu bizait ordea ori.

E. Bigarren epayac diyona da: *El Liberalismo es pecado* liburuchoac, España-co banderen baten alde esan *di-tzaquean* chirri-mirri batzuetan sartu

etzala tribunala, lenengo epaya berac eman zuanean, sartu ere eciñ citequea-
la orretan; liburuchoac dacarren *dotri-
ña* ordea, *Elizac eracusten duan* erara
dagoala, *garbi eta egozui* alaere: eta li-
burucho orren escribitzalleac *alabanzac
mereci izan dituala*, alabanza oyec no-
raño iristen diran ongui aditu ez bazu-
ten ere batzuec. — Orrezaz gañera: epai
berri onetan ez da esaten, nolabaiteco-
tzat eman zau beste liburuba, *El pro-
ceso del Integrismo*, óna danic, edo ar-
guitaratu ditequeanic, ez eta guchigo-
rican ere: bigarren epayac beraz, le-
nengoa ecertan guezurtatzen ez du, eta
bai berritzen ditu *El Liberalismo es pe-
cado* liburubaren alde, len eman ciran
alabanza ayec berac. (1.)

G. Esan dan liburucho ori tribuna-
lac ontzat emanarequin ¿cer adierazten
da?

E. Liburubac dacarren *dotriña* egui-
yazcoa dala, eta catolicoac beraz bel-
dur gabe gorde dezaquetena.

G. Eta ¿cer *dotriña* da liburu orrec
dacarrena?

(1) Vide epist. S. R. Congr. Indict. die 29 Au-
gusti ann. 1887.

E. Guciya dator esatera, liberal-queriya osoro dala gaiztoa, madaricagarriya, baitaere pecatu larriya.

G. Esan dan tribunalaren epayac aintzacotzat artzeco obligaciyoric aldagogero?

E. Bai, badago.

G. Cergatican?

E. Aita Santubaren ordezt eta beraren icenean itzeguiten du tribunal orrec: tribunalari ez obeditzea beraz, Aita Santubari berari ez obeditzea adiña litzaque: eta Aita Santubari ez obeditzea pecatu dan ezqueroz, erocēn catolicoc daquiyanez, baitaere beraz alada, esan dan tribunalari ez obeditzea; beartubac gaude beraz, pecatu eguinai ez badegu, esan dan tribunalaren epayac aintzacotzat artzera.

G. Catolico-liberalac ezagutzen ote dute egui ori?

E. Gueyegui esagutzen dute; bada beragatican jo zuten tribunal artara, bein eta berriz, eta iñore beartu gabe, esan diran bi liburubac-quin; eta tribunalaren epaya beren aldecoa izan balitz, ito ez, beste guciya eguingo guinuen, tratatzen guinuela catolico guerecoi eta gaiztotzat, ereje edo fede-

etsaitzat, eta asmatu-ala modu miñgarri ascotara.

G. Nola bada orain macurtzen ez dituzte beren burubac, *berac billatuta-co tribunalaren* erabaquiyetara?

E. Osoro guchi eguiyaz, bañon batzuec bai, macurtu dira ordu onean, ceatu diran epayetara, erlijioa politicaren gañean ceducatenean nozqui; bañon macurtu ez dira gueyenac, edo politicara gueyegui itsatsiyac bici diralaco, edo jatorriz dacarten *odolac*, personaac-quico griña berogarriren batec, edo bestelaco temaren batec, ordu gaiztoan daduzcatelaco.—Arrazoi aundiya ceducan beraz Aita Santu Pio bederatzigarrenac, esateco: «Catolico-liberalac bide zucenera ecarri itzatzute; bañon gauza zalla da eguiyaz!» (1)

G. Eta Obispo jaunac ¿cer diyote liberalqueriyaren gañean?

E. Nabarmenaguac baicican ez dira beraren contra; bada dirudi dabiltzalla guciyac ceñec bañon ceñec aundiya-goac esan.

G. Probatuco liquet?

E. Asco da guretzat escribituric da-

(1) Comp. *Theol. Mor.* a Llevaneras, cap. 19, artic. 5.

duzcaten gaceta edo cartac iracurtzea. —Osma-co obispo jaun guciz errespetagarriyac, oraiñ sei urte, ara cer escribitzen zuan: «Jarraitu ermo *catolico-en liberalqueriyari* gogor eguiten; bada ichuraz bestecoa izanic, bera da bandera setotsu icaragarriyena gure egunetan.» (1) Loja-co eta Portoviejo-co obispo jaun aundiyac, dembora guchiz onuztic beren cristau artaldeai ala escribitzen ciyen: «Liberalqueriya bere izatez gaiztoa dan ezqueroz eta beragatican *Elizac debecatuba*, Jaungoicoaren aurrean utseguin gabe, iñor eciñ izan diteque liberala. (2)

G. Vitoria-co obispo jaunarequin beste hostec, batera escriptu zuten carta arc liberalqueriyaren debecubari dagoquiyon ganzaric ote dacar ecerere?

E. Beste gai batzuez gañera, baita-ero liberalqueriyaren contra zorrotzquiro itzeguiten da carta orretan, eta aundiyagoa dana, cartaren bucaeran aguintzen da *eliza guciyetan iracurtzeco bera jai egunen batzuetan*, baita ere apaiz buru edo *parrocoai eta sermoiguille gu-*

(1) Epist. ad praeclaros viros Necedal, die 28 Febr. ann. 1882.—(2) Epist. past. 21 Maji ann. 1887.

ciyai berotasunic ascorequin erregutzen zaye, carta barruco itz-gayac cristau-catolicoai *adieraci eta sar erazolze-co sarritan*.—Obispo jaunen borondatetican beraz, baitaere liberalqueriya *sarritan adieraci eta sar erazo* bear diye apaiz nagusi edo erretoreac eta *sermoiguille guciyac* beren aditzalleai.

G. Cer da gañera osoro gogoan artzecoa?

E. España-co obisporic gueyenac, guciyac esateco, oyen artean Vitoria-coa sartzen dala, arguitaraci dituzte beren *Boletina* edo gacetetan, *El Liberalismo es pecado* liburuchua ontzat ematen zuten Erroma-co bi epayac.—Eta obispo españolacgatic esaten dana bera, edo alatsu, esan bear ere da mundu zabaleco beste obispo chit asco-gatic; bada aintzacotzat daduzcate lecu guciyetan, liburu orren alde emanic dauden alabanzac.

G. Contu orretan liberalqueriyaren contra obispo jaun asco nabarmendu izan dira?

E. Liberalqueriyaren contra esribitu izan duten obispoac contatu eciñ litezque; beste ascoc herriz, dotriña madaricagarri orren contra liburubac

moldizquiratzeco baimena, osoro pocic eman izan dute; eta itz batean esateco, liberalqueriya gorrotatuco ez duan obispo bat nequez topatuco da gaur.

G. Aita Santuarequin osoro-bat dau-de beraz obispo jaunac?

Bai, eta iñoiz ere bañon gueyago; ala esan dan gayan, nola erlijiyoari dagozquiyon beste guciyetan.

G. Aita Santuarentzat alderdi ona izango da ori?

E. Baitaere gozagarri aundiya daramazquiyen pena samiñetaraco; bada esan diteque, gure Salbatzallearen antzera, naigabezco *erantzaz corotua* da-goala.

VIII.

Gai-bera.

Galdera. Liberalqueriren bat óna edo gaitz-gabea ez aldago?

Erantzera. Ez, ez dago; eta eciñ ere egon liteque.

G. Cergatican ez?

E. Liberalqueriyaz libertade *gaiztoa* aditzen da, len esan danetz; liberalqueri ónic beraz eciñ egon liteque.

G. Libertade gaiztoa becela óna ere ez dago bada?

moldizquiratzeco baimena, osoro pocic eman izan dute; eta itz batean esateco, liberalqueriya gorrotatuco ez duan obispo bat nequez topatuco da gaur.

G. Aita Santuarequin osoro-bat dau-de beraz obispo jaunac?

Bai, eta iñoiz ere bañon gueyago; ala esan dan gayan, nola erlijiyoari dagozquiyon beste guciyetan.

G. Aita Santuarentzat alderdi ona izango da ori?

E. Baitaere gozagarri aundiya daramazquiyen pena samiñetaraco; bada esan diteque, gure Salbatzallearen antzera, naigabezco *erantzaz corotua* da-goala.

VIII.

Gai-bera.

Galdera. Liberalqueriren bat óna edo gaitz-gabea ez aldago?

Erantzera. Ez, ez dago; eta eciñ ere egon liteque.

G. Cergatican ez?

E. Liberalqueriyaz libertade *gaiztoa* aditzen da, len esan danetz; liberalqueri ónic beraz eciñ egon liteque.

G. Libertade gaiztoa becela óna ere ez dago bada?

E. Bai, libertade óna ere bada, len icusi danez; baño n libertade onari liberalqueriyaren icena inolaere ez dagoquiyo.—Libertadea gaiztoa danean bacarric beraz, dago liberalqueriya: eta libertadea óna edo gaitz gabea izan ez-queroz, liberalqueriric ez dago.

G. Liberalqueri ónic ez dagoala probatzeco beste arrazoiric ote dago?

E. Daude asco.

G. Eman bizat bada beste bat.

E. Liberatqueriren bat arqitzecotan óna, politica-raco libertadea edo catolicoen liberalqueriya litzaque ori: baño n añ zucen ere bera da liberalqueriyaren icenarequin gueyen-gueyena debeatzen dana, naicoa esan danez: liberalqueri ónic beraz ez dago, eta arqitu ere eciñ liteque.

G. Cer arrazoi dago besteric esan dana sinistaracitzeco?

E. Aita Santu Pio bederatzigarrena zanac guc beciñ ondo, eta are obetogo ere bai, bacequiyan cembat liberalqueri modu ciran munduban, edo cembat ichura eta eratacoa zan bera: eta alaere liberalqueri bat bacarrican apartatu etzuan ontzat, baicic oso-osorican, icen ta guci, debeatu zuan be-

ra: liberalqueriya izan litequean guci-guciya dago beraz debecatuba, eta beragatican ez dago liberalqueri onic baterere.

G. Liberalqueriya beraz bere izatez edo sustraiz bat bacarra da?

E. Bai, ala da.

G. Eta liberal guciyac berdiñac aldira?

E. Guciyac billatzen dute *gaitzera-co* libertaderen bat, eta onetan liberal guciyac dira bat; bañon batzuec nai dute libertade gueigo, besteac guchiyago, eta orretan bestetan ez dago liberalaren arteco desberdintasuna. — Liberalac beraz, sustraiz edo izatez, bat dira; eta bacarric ichuraz, colorez edo soñecoz dira asco.

G. Cer becela dira orduban liberal guciyac beren artean?

E. Dira arbola baten adarrac, olla-locaren chitac, familiya bateco señideac eta ejercitu baten soldadnac becela.

G. Cergatican dira arbola baten adarrac becela?

E. Arbolaren adarrac desberdiñac izan arren, au da, batzuec besteac bañon mearragoac eta mochagoac, edo lodiyagoac eta luceagoac, guciyac or-

dea sustrai batetic datoz, eta zañetic igotzen zayoten bustiya edo zumoa ere, guchi edo gueigo, bat da guciyentzat. Eta era berean liberalac, batzuec besteac bañon chiquiyagoac eta leunagoac, edo aundiyagoac eta zacarragoac izanagatic, guciyac sustrai bat dute, daan, gaitzeraco libertadea: guciyac guchi edo gueigo, zumo bat chupatzen dute, eta ori da, lasaiqueriya.

G. Cergatican dira liberalac ollalocaren chitac becela?

E. Beren artean chitac, batzuec besteac bañon guicenagoac eta betegoac, edo erquiñagoac eta aulagoac balira ere, guciyac ordea ama batenac dira, eta guciyac sartzen dira amaren egapean: baita ere liberalac, batzuec besteac bañon nabarmenagoac eta gaiztoagoac, edo bildurtiyagoac eta mansoagoac izan arren, guciyac ordea ama bat izan, eta beraren egapean sartzen dira, da ori, libertade gaiztoaren bandera.

G. Eta cergatican ote dira familiya bateco senideac becela?

E. Familiya bateco senide artean, batzuec aundiyagoac eta gogorragoac, besteac chiquiyagoac eta motelagoac izan oidira: liberaletan ere, batzuec li-

bertade osoz gaiztoac eta asco nai dituztenac dira: bañon besteac libertade ariñ eta pisca batzuec besterican nai ez dituzte.—Gañera, senideac alcarren maiteac izaten dira, eta batzuetan beren artean aserretzen dirala badirudi ere, bereala alcar-artzen dute beren etsayaren contra: eta era berean liberalac, beren artean bulla eta guerra batzuec izaten badituzte ere, ederqui daquite alcar-artzen beren etsayaren contra; da au, catolico osoen hain lera.

G. Liberalac orduban famili bat eguiten dute?

E. Aissa eguiten dute.

G. Probatu bezait.

E. Probatu bearric ez dago; bada liberalac berac aitor dute: eta orrezaz gañera, liberalqueriyari noiz nai *liberalen famili aundiya* deritzayo.

G. Masoyac, judubac, protestanteac eta catolico liberalac senideac dira beraz?

E. Liberal gnei-guciyac dira beren artean senideac; argatican ez diyote alcarri alaco beldurric, ez beintzat catolico osoai becela: eta beragatican ere alcar billatu eta topatzen dute, catolico osoac-quin bestela eciñ duten guciyan,

eta libertade edo gauza gaiztoren batzuec irichi edo gueitu nai lituzque-
nean.

G. Liberalac nolatan dira azquenic
ejercitu bateco soldadubac becela?

E. Ejercitu bateco soldadubac, batzuec aurretic eta besteac atzetic, batzuec lensseago besteac guerosseago, bañon guciyac etsai baten contra di-
joaz: eta era berean liberalac, batzuec nabarmenago eta besteac zomorroago, batzuec gaur eta besteac bigar, guciyac etsai bat perseguitzen dute, da au catolicotasunaren *osotasuna*, edo eguiya-
ren zorrozatasuna.—Soldadubac gañera, talde desberdiñetan egon arren, guciyac ezagun izaten dira jantziyan eta bestela, cer ejercitucoac diran: baita liberalac ere, trola desberdiñetan partitubac egon arren, guciyac jantzi bat becela *liberalaren icena* artzen dute eta catolicotasun osoaren beste aldeco liburubac, paperac eta izquetac dituzte.

G. Cer diyote eliz-guizonac gai orrezaz beraz?

E. Esan dana ber-bera.

G. Probatu bizat bada.

E. *El Liberalismo es pecado* liburu-
ban, ára cer iracurtzen dan: «bat baca-

rra da liberal queriya; bañon badira liberalac, ardo charrarequin guertatzen dan becela, colore eta gusto desberdinecoac.... Bai; liberalqueriya bere malla eta ichura guciyetan debecatu izan da bear becela.»

G. Eta obispo jaunac ¿cer eracutsi izan dute?

E. Loja-co eta Portoviejo-co obispoac, ara cer ciyoten oraindican-orain: «Liberalqueriya bere izatez da gaiztoa, eta argatican *debecatu izandu da bera aimbeste bider ichura guciyaquin batera*; fedean utseguin gabe beraz, liberalqueriyaren esaera edo dotriña guezurti eta biyurriyac artu eciñ ditzaque inore.... Ez esan politican ceratela liberalac, eta ez erlijiyoan; orrelaco apartaquetaric ez dago: beraiz asmatutaco aitzaqui bat da ori, guezurraren aitac eracutsiya, eguiyaren arguira beguiyac ichitzen dituzten aimbeste zoro engañatze-co, Elizaren esanac bañon beren iritziya nayago dutela. (1)

G. Vitoria-co obispo jaunarequin batera eguin zan cartac ¿ez aldiyo ecerere gai orrezaz?

(1) Epist. past. supradieta 24 Majii ann. 1887.

E. Osoro egoquiyac dira darabilquigun gayeraco len aitatu ciran itz oyec: «Eguiya da liberalqueriyaren malla guciyac berdiñac ez diralá; bañon bai-taere eguiya da, contuz beguiratzen duanarentzat, guchi-asco *malla guciyac* daramatela beren errayetan aguimbidea eta sociedade edo gende-billera erlijiyo gabe uztea.»

G. Liberalqueri onic ez dagoan ez-querroz, liberalaren icena ere eraman bearco ez da?

E. Ez, eciñ eraman dezaquete catolicoac icen ori?

G. Cergatican ez?

E. Elizac bere etsaitzat, eta libera-lac beren adisquide edo laguntzat da-ducate liberalaren icena daraman gu-ciya: icen ori eramanarequin beraz. Elizari naigabea eta tristura, liberalai berriz poza eta erimotasuna ematen za-yote: eta ori, erocetsec icusten duanez, gauza gaiztoa da.

G. Liberalaren icena eramatea de-beecatuba egongo da orduban?

E. Bai, ala dago.

G. Cergatican?

E. Fruta bat oso-osoan debecatzen danean, baita ere beraren azala debe-

catutzat eman bear da: liberalqueriya, fruta gaizto huten guisara, oso-osoric-
an debecatzen da: baitaere beraz bera-
ren azala, edo liberalaren icena, debe-
catuba dago.

G. Cer esan nai du ordea icen utsa
eramateac?

E. Asco esan nai du: fruta bereala
galtzen da, azala quentzen bazayo: eta
era berean liberalqueriya ere aurqui
deseguin edo aulduco litzaque liberala-
ren icena catolicoac ez baleramate.

G. Nola da ori?

E. Eguiyazco liberalac, au da, libe-
ralqueriya jaquiñaren gañean nai dute-
nac, osoro dira guchi catolico osoen
aurrean, eta ala berenez ez leucaquete
daucaten sendotasuna: bañon icenez
badaere liberal izan nai dutenac, bai,
asco dira, eta icen orretaco guciyac se-
nidoac becela alcarri laguntzen diyote
catolicotasunaren contra: eta orrequin
guero irauten du liberalqueriyac beste-
la iraungo ez luquean adiña.

G. Cergatican da gueyago gauza
gaiztoa, liberalac izan ez, eta ala ere
liberalen icena eraman-naya?

E. Guezurretan ibiltzea adiña dala-
co: bada liberalen icena eramatea, li-

beralac guerala esatea adiñasse da, eta ala ez baguera, guezurra adierazten da orduban liberalaren icanarequin, baita ere gendea engañatzen degu.—Argatican da eguiyazcoa esaera au: *icen utsa* edo *alferricacoa*, *gaiztaqueriyaric aundiynetacoa*. (1)

G. Ger irudi jarri liteque esan dana obetogo adierazteco?

E. Soldaduba, apaiza, edo erlijio-tsuba ez danari debecatzen zayo ala-coen janciya erabiltzoa, bada gende arteraco bestela calte aundiyac letozque: baitaero heraz catolicoa, edo liberala ez danari, orrelacoen soñecoa edo icena eramatea, debecatuba daducaquiyo, orretatic sortu litezquean eta sortzen ero diran oquer aundiyac-gatican.

G. Esan dana hera sinisterazotzeco aldago beste arrazoiric?

E. Beste batzuben artean ara bi: bata da, liberalaren icena eramanarequin, gaitzeraco bidea ematen dalaco: eta bestea da, liberalaren icena eramatea, liberala izatea adiñasse dalaco.

G. Liberalaren icen utsarequin nola ematen da gaitzeraco bidea?

(1) Nomen inane, crimen immane.

E. Liberalaren icena daraman catolicoac, liberala dala adierazten du, baitaere sinisterazotzen diye persona ezjaquiñai liberalqueriya gaitz gabea edo gauza óna dala, eta orrequin guero liberaltzen dira, bestela liberalduco ez liraquen catolico on asco.

G. Eta cergatican da liberala izatea adiña, liberalen icena eramatea?

E. Liberalen icena daraman guciya, liberalac beretacoa dala nste izaten dute; eta icen orretacoac asco dirala icusirican, berotu eta bizcortzen dira Elizaren contra, baitaere botoac eta bestelaco laguntasunac escatzen dizte: eta catolico osoac berriz contrara, beren etsaya dutelacoan liberalaren iceneco guciya, aimbeste liberalen aurrean oztu eta atzentzen dira orlijioaren aldeco guerra santuban; eztaere botorie edo bestelaco laguntasunic izatea uste ez dute liberalen iceneco oetatic. Liberalaren icena eramatea beraz, liberala izatea da, edo alatsu beintzat.

G. Eliz-guizonac al diyote ecerere gai orrezaz?

E. Aquino-co santo Tomás guciiz jaquintsuac, ala escribitu zuan: «Fe-de-etsayac-quin icen bat iduqui bear

ez degu, iruditu ez dediñ alaccen do-
triña gaiztoai laguntzen diyegula.» (1)
Liberalac quin ere beraz eraman bear
ez degu, berai laguntzen diyegula iru-
ditu ez dediñ.

G. Eta gure egunetaco eliz guizo-
nac, ¿cer diyote?

E. *El Liberalismo es pecado* liburu-
choan cearo eracutsi eta probatzen da,
liberalaren icena artu edo erabiltzea
gaur pecatu dala, eta pecatu larriya be-
rez. Ori eracutsi ondorean, ala diyo li-
buruchoac berac. «Ez, nere adisquidea,
ez: liberalaren icena eciñ iduqui eza-
zuque.» (2) — Francia-co eliz-guizon
aundi eta celotsu batec, Pio bederatzi-
garrenac ontzat emandaco liburuchoan,
ala eracusten du: «Emendican aurrera
cristau bat, osoro ezjaquiña ez bada,
Jaungoicoarequico icusquizunic gabe
liberala eciñ izan diteque, eta *catolico-
liberalaren* icena ere artu eciñ deza-
que.» (3)

G. Obispo jaunac ¿cer eracusten di-
gute gai orrezaz beraz?

E. Daulia-co obispo guciz benera-
garriyac, orain zazpi urte, catolico oso

(1) Summ. 3 quæst. 17, art. 8.—(2) Cap. 14.

(3) *Segur*, opusc. *Hommage*, cap. 9, in fine.

eta catolico liberalen artean eguin nai izandu zan batasuneraco, ara cer escatzen zuan: *Liberalen icena utzi ezazute.* (1) — Portoviejo-co obispo jaunac berriz, uzten dirala beste asco laburtasuna-gatic, ara cer escriptu zuan len aitatutaco carta berean: «Liberalarec icena guretzat debecatuba dago, bada ereje edo fede-etsayac eta Eliza perseguitzen dutenac icen ori bera dute.» (2)

G. Liberalaren icenac beraz gauza bat adierazten du gaur mundu guciyan?

E. Bai, ala adierazten du.

G. Cer adierazten du bada?

E. Len esana dagoana: au da, libertade falsoaren jarraitzallea: gaitzeraco libertadea ontzat daducana: Jaungoicoaren legueric nai ez duana, ez beintzat politicari edo erriyen gobernu-bari dagozquiya gayetan.

IX.

Pecatubaren gañeco dotriña.

Galdera. Cer da pecatuba?

Erantzuer. Jaungoicoaren leguea

(1) Epist. ad fundat. societ. denomin. *Union Catolica.* ann. 1881.

(2) Epist. past. supra dicta 21 Maji ann. 1887.

eta catolico liberalen artean eguin nai izandu zan batasuneraco, ara cer escatzen zuan: *Liberalen icena utzi ezazute.* (1) —Portoviejo-co obispo jaunac berriz, uzten dirala beste asco laburtasuna-gatic, ara cer escriptu zuan len aitatutaco carta berean: «Liberalarec icena guretzat debecatuba dago, bada ereje edo fede-etsayac eta Eliza perseguitzen dutenac icen ori bera dute.» (2)

G. Liberalaren icenac beraz gauza bat adierazten du gaur mundu guciyan?

E. Bai, ala adierazten du.

G. Cer adierazten du bada?

E. Len esana dagoana: au da, libertade falsoaren jarraitzallea: gaitzeraco libertadea ontzat daducana: Jaungoicoaren legueric nai ez duana, ez beintzat politicari edo erriyen gobernu-bari dagozquiyeu gayetan.

IX.

Pecatubaren gañeco dotriña.

Galdera. Cer da pecatuba?

Erantzuer. Jaungoicoaren leguea

(1) Epist. ad fundat. societ. denomin. *Union Catolica.* ann. 1881.

(2) Epist. past. supra dicta 21 Maji ann. 1887.

cerocertan austeia edo bera austeco arriscuban jartzea.

G. Jaungoicoaren legueaz zer aditzen da?

E. Jaungoicoac eracusten duan guciya, naiz berez, amar aguinteac eracutsi cituan becela: edo naiz munduco *aguintariyen bidez*, Aita Santuaren bidez batezere, gauzaric gueyenac eracutsi oi dituan becela.

G. Aguintariyen legueac zer gatican artu bear dira Jaungoicoaren leguetzat?

E. Jaungoicoaren ordecoac izanic, malla desberdiñetan badaere, aguintari guciyac, Jaungoico beraren icenean aguintzen dutelaco: edo are obetogo esateco, daducaten aguimbidea aguintariyac, Jaungoicoa-gandic ezpada, eciñ izan cezaquetelaco.

G. Cergatican ez?

E. Gure izate, edo guizatasun utsera ezqueroz, berdiñac guñaque guciyoc, eta ez guenducaque beraz batec besteari aguintzeco escubideric, eta bai bacarric indarra, animaliyen guisara.

G. Nola autsi bear da ordeia Jaungoicoaren leguea, pecatu izango bada?

E. Ezagüeraquin eta borondatez:

au da, jaquiñaren gañean eta naita.

G. Leguea autsi arren beraz, guertatu diteque pecaturic batere ez eguitea?

E. Bai, eta ascoc usteco duten bannon gucyagotan guertatzen dan gauza da ori.

G. Guertaldi batzuec jarri bitza ba.

E. Gauza gaiztoac ametsetan izatea; bijili edo arrai egunean, oroitu gabez, araguiya jatea; pecatu larriyac aztuta confesatu gabe iduquitzea; eta orrelaco beste asco, pecatu ez dira berenez eza-güeraren faltaz.—Era berean: jayeguneco meza eciñean uztea; otsoa edo basurdia dalacoan personaren bat iltzea; besteren gauza, berea dualacoan gordetzea; eta oyen antzeco beste asco ere, gaitzeraco borondateric ez dagoanean, berenez ez dira pecatu.

G. Ezagüeraric eza *beraicicacoa* danean, ¿ez alda pecaturican batere eguiten?

E. Aguertzen dan borondate gaiztoa-gatic bada ere, bai, eguiten da.

G. Cer ezagüera eta borondate modu bear ote dira pecatu eguiteco?

E. Leguea ansteco cerbait ezagüera eta borondatea izan ezqueroz, beti eguingo da pecatu, chiquiya badaere;

bañon pecatuba larriya izateco, gaitz aundiraco ezagüera eta borondatea bear dira.

G. Eta pecatuba berez, ¿noiz da aundiya, eta noiz da chiquiyya?

E. Jaungoicoaren leguea gai aundiyan austen danean izango da pecatuba aundiya, larriya edo mortala: eta gai chiquiyan austen danean herriz, pecatuba ere chiquiyya, beniala edo ariña da.

G. Cer guertaldirequin adieraci lei-que ori?

E. Ara batzuec: jayegunean premi-gabe eta iru orduz aurrera lan ne-cagarriyetan aritzea; egun jaquiñetan barauric ez eguitea, orretara beartua egonda; lagun urcoari ontza-urra lapurtzea; eta orrelaco beste gauza asco pecatu mortalac dira.—Pecatu benialac dira herriz: gurasoi gauza ariñ batzuec erantzutea; elizan premi gabe izquetla edo far pisca bat eguitea; beingoan erreal baten baliyoa ostutzea; eta oyen antzeco beste asco.

G. Pecatu-mota guciyetan al dago gai aundiya eta gai chiquiyya?

E. Badira pecatu batzuec gaya be-ñere chiquitu eciñ litzayequenac; eta

beragatican orrelaco pecatubac berenez dira beti mortalac.

G. Bañon ¿cer pecatu dira oyec?

E. Beste batzuen artean ala dira, Jaungoicoarequico gorroto nabarmena, arnegu edo blasfemiya, fede-austea, guezurrezco juramentuba eta oyen antzecoac.

G. Aitatu diran pecatu oyec ¿cer-gatican dira ordea beti mortalac?

E. Dira beti mortalac berenez, Jaungoicoaren contra zucen-zucenean di-joacelaco, edo berari zor zayon onra quentzen dutelaco.

G. Eta cer pecatu ote dira nequez-en barcatzer diranac?

E. Espiritu Santuaren contra diranac: au da setaz eta beraiz becela egui-ten diranac.

G. Cer pecatu dira oyec?

E. Beintzat ala dira bi oyec: bata, ezagutzen dan *eguiya ucatu eta perse-guitzea*; eta bestea, *pecatuba ez utzi na-ya*.

G. Eguiya ezagutu eta alaere ¿cer-gatican perseguitu oi da bera?

E. Lasago bicitzeagatican.

G. Cein becela dira eguiyaren per-seguitzalleac?

E. Beguiyetaco miña duana becela; edo nayago bada herriz, Jesucristo gure jaunaren demboraco judubac becela-sse.

G. Cergatican bada?

E. Beguiyetaco miñarequin dagoanac, arguiric ieusi ecin dualaco, illuntasuna nai du: eta era berean eguiyaren perseguitzalleac, lasaiqueriyaren illumpean ibilli nai dutelaco, eraman eciñ dute eguiyaren arguitasun ederra. —Argatican judubac ere, Jesus manso eta gozoaren eguiyac eraman eciñ ci-tuelaco, perseguitu zuten bera, arrica emateraño eta gurutzean iltzeraño.

G. Eta pecatuban gogortuta bici nai dutenac ¿ceñ becela ote dira?

E. Sabelean arriya daducan eri bat becela; baita ere Faraon erregue gaiztoaren antza badute.

G. Cergatican dira esan dan eriya becelá?

E. Sabelean daducan arriya botaco duan bañon lenago ilco da eriya; nolanaire bointzat osoro nequez botaco du, eta ez oñace aundiyac-gabe; eta pecatuba utzi nai ez duana ere, edo gogortuta dagoan pecatariya, sendatu edo bigunduco dan bañon seguruago ilco

da bere pecatubac-quin; eta biguntze-cotan ere, osoro nequez bigunduco da.

G. Eta certain dute Faraon erregue-aren antza orrelaco pecatariyac?

E. Jaungoicoac, bere serbitzari Moises umillaren bitartez, eguin cituan mirari aundiyac-quin ere, bigundu etzan erregue hura Jaungoicoaren esanetara; eta sorguinqueniyac eta bestelaco pecatubac utzi bañon lenago illzan erregue doacabea, ichasoac bere azpiyan artzen zuala.—Jaungoicoac baitaere gaur baditu Moises berriyac, nola diran Aita Santuba batecere, obispo jaunac eta sermoiguille celotsubac; oyen esanac despreciatubaz pecaturen batean gogorturic bici nai duana beraz, bere pecatuba utzico duan bañon lenago ilco da, sartzen zayola anima une artatic suzco ichasoan.

G. Esan diran azqueneco bi pecatubac nolatan dira Espiritu Santubaren contracoac?

E Espiritu Santubari dagoquiyo pecatutic apartatzeco bear diran arguiya eta gozagarriyac animari sentieraztea; ucatu nai danean beraz ezagutzen dan eguiya, edo pecaturen bat inola ere utzi nai ez danean, Espiritu Santubaren

arguiya eta laguntasunac despreciatzen dira; eta beragatican dijoaz esan diran bi pecatubac zucen-zucenean Espiritu Santubaren contra.

G. Eta eguiya da pecatu oyec osoro nequez barcatzen dirala?

E. Ebangeliyo santuban iracurtzen da, *bestelaco pecatubac eguiten dituanari barcatuco zaizcala; bañon zucenean Espiritu Santubaren contra eguiten dituanari, ez bicitza onetan eta ez bestean, barcatuco etzaizcala.* (1)

G. Espiritu Santubaren contra pecatu eguiten duana infernuraco da orduban?

E. Ez orrembestere: bada osoro guchitan eta nequez sendatzen dan gaitza duan bategatic, sendatuco ez dala esan oi dan becela; Espiritu Santubaren contraco pecatubac ere, osoro guchitan eta nequez barcatu oi diralaco, esaten da barcatuco ez dirala.

G. Cergatican da ordea añ nequeza pecatu oyen barcaciyoa?

E. Damurican gabe ez dira barcatzen pecatubac: Espiritu Santubaren contraco pecatubac eguiten dituana,

(1) *Math.* cap. 12, vs. 31 et 32. — *Marc.* cap. 3, vs. 28 et 29. — *Luc.* cap. 12, v. 10.

damutasunetic osoro dabill urruti, orretaraco bideac despreciatzen ditualaco: barcatuco ere etzaizca beraz osoro nequez ezpada.

G. Contu orretan barcatzeco neque ori Jaungoicoagan ez dago?

E. Dago pecatariyagan, bere pecatubaz damutu bearrean, beretan irannai dualaco: bada Jaungoicoac bere aldetic pecatu guci-guciyac barcatu nai ditu, eta barcatzen ere ditu pecatariyari eguiyaz damutzen zayonean.—Sendatzalleac eracutsi eta esqueñi dituan osasungarriyac despreciatzen baditu erí batec, osasuna ez iristea eriya beraren culpa da, eta ez sendatzallearena eta beste inorena: Espiritu Santubaren arguiya eta sendagarriyac uzten dituan pecatariya ere beraz, bere culpaz bestezaz ez dago pecatuban eta infernura-co bidean.

G. Espiritu Santubaren contra eguiten diran pecatubac ¿certan desberdintzen dira bestelaco pecatuetatic?

E. Beste pecatubac argaltasunaz eta ez jaquiñean edo ezagüera osoaren faltaz eguin oi dira: au da, ez aimbeste Jaungoicoarequico gorrotoz, nola gueron hurubaren prochuren bategatic;

eta alderdi bat da au, Jaungoicoa mugituko duana guri errazago barcatzera, liburu santubetan eta Elizaren oraciyo batzuetan adierazten denez. (1)—Espiritu Santubaren contraco pecatubac berriz, jaquiñaren gañean eta be-
raiz eguiten diranac dira: au da, ez gu-
re grñen indarrez edo berotasun ba-
tean, baicican odol otzarequin eta seta
gaiztoz; edo eguiyari arrazoya ez ema-
teagatic, edo gaorenarequin atera gai-
tecen, edo pecatubac utzi gabe zaba-
rrago bici gaitecen: eta orrelaco peca-
tariyac azqueneraco utzi eguin oi ditu
Jaungoicoac aspertuta, eta galtzen dira
betico Faraon eta Saul bi erregueac eta
beste asco becela.

G. Jaungoicoaren leguea combat-
eratarata autsi ditekue?

E. Era ascotara: nola dan pensa-
mentuz, gogoz, itzez, obraz, baitaere
eguin bear diranac *eguin-gabez* edo za-
barqueriaz.

G. Cer zabarqui da ordea ori?

E. Aundiyyenetaco bat da, aintzaco-
tzat ez badaucate ere ascoc, bacoitza-
ren estadu edo bicierari, *cargubari* eta

(1) Genes. cap. 8, v. 21.—Ps. 78, vs. 8 et 9.—Eccle-
sia in diversis officiis.—Vide infra.

lanquintzari dagozquiyon obligaciyoac ez betetzea.

G. Eta deseo gaiztoac ¿cergatican dira pecatu?

E. Gaiztaqueriyaren aciya eta sustraya becela diralaco; bada deseo edo gogo gaiztoric ez balitz, itz eta obra gaiztoric ez legoque.—Jesus maiteac argatican diyo Ebangeliyo santuban: «Gogoraciyo gaiztoac, eriotzac, adulteriyoac, araguzco pecatubac, lapurretac, guezurrezco testigutzac, blasfemiya, *biotzetie* jayotzen dira.» (1)

G. Eta leguea austeco arriscuban edo peligroan jartzea ¿cergatican da pecatu?

E. Arrazoi ascogatic: bata da, gu artan icusi gaitzaqueenai gaitzeraco bidea edo escandaloa eman deyequela: bestea da arriscuban jarriyarequin leguea nolerebait despreciatzen dalaco: eta irugarrena da, arduragabequeriya edo borondate gaizto bat aguertzen dalaco.

G. Leguea austeco arriscuba edo pecaturaco bidea ¿cembat eratacoa da?

E. Lau eratacoa: bata *gogoaren con-*

(1) *Marth.* cap. 15, v. 19.

tracoa, edo nai ez guenduqueana: bes-
tea, *borondatezcoa*, edo guero bilatzen
deguna: irugarrena *urruticoa* edo chi-
quiya, au da, pecatuba alde-aldean ez
duana: eta langarrena *urerecoa* edo aun-
diya, au da, pecatuba urruti-urruti ga-
be daucana.

G. Eta zer pecatu da leguea auste-
co arriscu ori?

E. Gogoaren contracoa eta urruti-
coa danean, baterere ez da pecatu be-
rez, pecaturaco beti bear dan boronda-
te gaiztoaren faltaz; bañon leguea aus-
teco peligroa, edo pecaturaco bidea, bo-
rondatezcoa eta alde-aldecoa edo urre-
coa bada pecatuba orduban autsi lei-
quen *leguearen neurricoa* da.

G. Dotriña orren adieragarriren bat
jarri bizat.

E. Ordiqueriya eta araguzco peca-
tuba edo loiqueriya, berenez pecatu la-
rriyac diralaco, baitaere ala izango da,
borondatez artaraco bide zucenean edo
peligro urrecoan jartzea: eta gaizqui-
esan ariñ batzuec, eta iñoren calteric
gabeco guezur chiquiyac, berenez pe-
catu venialac besterican ez diralaco,
orretaraco peligro urrecoan naita jar-
tcea ere, pecatu veniala da bacarric.

G. Pecatubac azquenican ¿cer ondoren tristeac dacaizquiyo animari?

E. Beste ascoren artean, ara cer: pecatuba hacarric beniala bada, ipintzen du anima purgatoriyo tormenta-garriraco bidean; eta mortala bada berriez, erbestetutzen du betico cerutic, eta ondatzen du infernura betiraunde guciraco.

X.

Pecatu larriya da liberalqueriya.

Galdera. Liberalqueriya pecatu ote da?

Erantzuer. Bai, ala da; eta pecatu larriya eta aundiynetacoa alaero.

G. Cergatican da bada pecatu?

E. Gaiztaqueri guciya, pecatu da, (1) diyo san Juan ebangelistac: osoro da gauza gaiztoa liberalqueriya, icusi danez: baitaero beraz pecatu da.

G. Cergatican da ordea pecatu gaiztaqueri guciya?

E. Pecatuba da, esan danez, Jaungoicoaren leguea auste: crocer gaiztaquerirequin ansten da legue ori, esan ere danez; gaiztaqueri guciya da beraz pecatu.

(1) I Joun. cap. 3, v. 4, et cap. 5, v. 17.

G. Pecatubac azquenican ¿cer ondoren tristeac dacaizquiyo animari?

E. Beste ascoren artean, ara cer: pecatuba bacarric beniala bada, ipintzen du anima purgatoriyo tormenta-garriraco bidean; eta mortala bada berriez, erbestetutzen du betico cerutic, eta ondatzen du infernura betiraunde guciraco.

X.

Pecatu larriya da liberalqueriya.

Galdera. Liberalqueriya pecatu ote da?

Erantzuer. Bai, ala da; eta pecatu larriya eta aundiynetacoa alaero.

G. Cergatican da bada pecatu?

E. Gaiztaqueri guciya, pecatu da, (1) diyo san Juan ebangelistac: osoro da gauza gaiztoa liberalqueriya, icusi danez: baitaero beraz pecatu da.

G. Cergatican da ordea pecatu gaiztaqueri guciya?

E. Pecatuba da, esan danez, Jaungoicoaren leguea auste: crocer gaiztaquerirequin ansten da legue ori, esan ere danez; gaiztaqueri guciya da beraz pecatu.

(1) I Joun. cap. 3, v. 4, et cap. 5, v. 17.

G. Eta liberalqueriya ¿cergatican da pecatu *larriya*?

E. Gaitzaren neurrricoa da pecatuba, len adieraci danez; liberalqueriya osoro gaitz aundiya dalaco beraz, da ere osoro pecatu aundiya edo *larriya*.

G. Cergatican gañera da pecatu liberalqueriya?

E. Eliza ama santac debecatzen dituan opiniyo eta dotriña guciyac pecatu dira: opiniyo eta dotriña debecatzen oyen artean dago liberalqueriya, len icusi degunez: liberalqueriya beraz pecatu da.

G. Elizac debecatzen dituan dotriña eta opiniyo guciyac ¿cergatican ote dira pecatu?

E. Dotriña eta opiniyo *gaiztoac* dira bacarrican Elizac debecatzen dituanac: eta nola gaiztaqueri guciya, erocer dala, pecatu baitan: dotriña eta opiniyo gaizto guciyac beraz, edo Elizac debecatzen dituanac, pecatu dira.

G. Orrelaco debecubac emateco es-cubideric al du guero Elizac?

E. Aissa du.

G. Norc emanda?

E. Jesucristo gure jaunac.

G. Noiz eta nola bada?

E. Cerura igo bear zuan aurretic here apostoloai esaten ciyela: «Aitac ni biraldu ninduan becela, biraltzen zaituztet nic ere znec. (1)—Aguimbide osoa eman zait neri cernban eta lurrean. Zoazte bada, eta eracutsi zayezute gende guciyai.... eracutsi nic zueri aguindu dizquitzedan gauza guciyac gordetzen (2)—Zoazte mundu gucira eta persona dan guciyari eracutsi zayozute ebangeliyoa.» (3) edo ceruticaco dotriña.

G. Cer adierazten da esan diran itzacquin?

E. Jesucristoren ordecoa dala Eliza santa, eta Jesucristoc gende guciyai eracusteco daducan aguimbide oso hura, Elizac ere baduala: Ebangeliyo sansantubarequin ondo ez datocen opiniyo eta dotriñac beraz, au da, opiniyo eta dotriña gaizto guciyac debecatu ditzaque Eliza ama santac.

G. Eta eciñ utseguin al dezaque Elizac dotriña edo opiniyo ónac gaiztotzat emanaz?

E. Ezta inola ere.

G. Cergatican ez?

(1) *Joan*, cap. 20, v. 21. —(2) *Marth*, cap. 28, vs. 18, 19 et 20. —(3) *Marc*, cap. 16, v. 15.

E. Jesucristo gure jauna, ebangeliyo santubac diyonez, dagoalaco beti eta egongo ere dalaco Elizarequin mundubaren bucaeraño. — (1) Orrezaz gañera: Jesucristoren ordeez egonic munduban Eliza santa, once utseguitea, Jesucristo berac utseguitea litzaque; eta eciñ ditequean gauza da ori, bada Jesucristo gure jauna, guizona cecic, Jaungoico ere bada.

G. Elizari ez obeditzea beraz, Jesucristo berari ez obeditzea adiña izango da?

E. Jesucristo gure jaunac, bere icasleac dotriña eracustera biraldu ciztuan batean, ala esan cizen: «Zueri aditzen dizutenac, neri aditzen dit: eta zuec despreciatzen zaituztenac, ni despreciatzen nau: ni despreciatzen naunac berriz ni biraldu ninduana despreciatzen du.» — (2) Eliza santaren debecubetara ez macurtzearequin beraz liberalac, ez bacarrie Eliza, au da, Aita Santubac eta obispo jaunac, baitaere Jesucristo gure jauna eta Jaungoicoa despreciatzen dituzte, eta beragatican eguiton dute pecatu.

(1) *Matth.* cap. 28, v. 20. — (2) *Luc.* cap. 10, v. 16.

G. Cer pecatu dira Elizac debecatzzen dituan opiniyo eta dotriña gaiztoac?

E. Pecatu larriyac berenez; bada opiniyo eta dotriña gaiztoetatic datocen calteac beti dira aundiyac, dala animaraco edo dala Elizaraco: beragatican liberalqueriya ere da berez pecatu larriya.

G. Cergatican gueyago da pecatu liberalqueriya?

E. Beti da pecatu, erocēñec daquiyanez, ama bat naigabetzea, dala ucatubaz berari zor zayon beguiramentuba, edo dala billauqueriya berari aguer tubarequin: catolicoen liberalquerriyac era ascotara naigabetzen du ama Eliza santa: catolicoen liberalqueriya beraz pecatu da.

G. Cer naigabe ematen diyozca bada liberalqueriyac ama Eliza santari?

E. Ematen diyozca asco eta aundiyac: bata da, ucatzea gonde arteraco eta aguintari guciyen gañean Elizac daducan aguimbidea: bigarrena da, onēñ etsai gordiñai indarra edo egoac ematea: eta beste bat da berriz, salduqueriyaz edo sorbaldatic berari erasotzea.

Elizac aldu ordea orain aitatu dan aguimbidea.

E. Jesucristo gure jaunac, esan degunez, *gende guciyai eta persona dan guciyari* dotriña eracusteco aguimbide osoa eman cion: haitaere beraz sociedade edo gende-billera eta aguintariyai eracusteco aguimbidea badu.

G. Ceñ dira Elizaren etsairic latz edo gordiñenac?

E. Dira judubac, protestanteac eta masoyac.

G. Liberalqueriyac nola ematen dizte oyei egoac Elizaren contra.

E. Catolico-liberalac lagundu nai izaten ez dicee catolico osoai Eliza santaren aldeco guerran, eta ori herogarri aundi bat da Elizaren otsayentzat; bada icustén dute, catolico-liberalen laguntza gabe, Eliza santaren indarrac asco guchitzen dirala.—Eta negargarriyagoa dana, catolico-liberalac eta Elizaren otsayac, masoyac hatecere, noiz nai daquite alcar-artzen catolico osoen contra; eta orrequin guero pizcortzen dira etsai mota guciyac eta aultzen da Eliza santaren aldeco bandera zuriya.—Argatigan icusten da, catolicoen liberalqueriya aurreratzen dijoan

becela, aurreratzen ere dala Elizaren contraco bandera beltza, masoiqueriya ez guchiyena.

G. Eta eguiya da liberalqueriyac sorbaldatic erasotzen diyola Elizari?

E. Gende ez jaquiñ edo escola gabeari sinistaraci nai diyo liberalqueriyac, obispo jaunac eta Aita Santuba bera ere liberalac dirala; catolico-liberala izateac gaitzic baterere ez duala; eta ori sorbaldatic edo salduqueriz erasotzea besterican ez da.—Gañera, egui au bera lenago ere naicoa probatu zan.

G. Naigabo aundiyac eta asco dira orduban Elizac catolico-liberaletatic izaten dituanac?

E. Bai, ala dira, orain esan danez: argatican pecatu larriya ere da catolico-liberalen izatea.

G. Liberalqueriya pecatu dala sinistaracitzeco beste arrazoiric al dago?

E. Arrazoi berri bat óna emen. Pecatu da dotriñac eracusten duanez, gaitz-bidea edo escandaloa lagun urcoari ematea: liberalqueriyac ascori ematen diye gaitzeraco bidea: liberalqueriya beraz pecatu da.

G. Ceiñtzubei ematen diye ordea liberalqueriyac gaitzeraco bidea?

E. Gobernubai lenengo, eracusten diyela Elizari zor zayon laguntasuna ucatzen: Eliza beraren etsaiari urrengo, masoiari batecere, dotriña galgarriyac zabaltzeco libertadea ematen diyela; baitaere azquenic catolicoai, sinistara-citzen diyela, catolico-liberala izateac eceren oquerri ez duala.

XI.

Gai-bera.

Gal'dara. Gueyago ote da arrazoi-ric liberalqueriya pecatu dala proba-tzeco?

Erantzueria. Daude beste asco.

G. Esan bizait bada bat.

E. Len eracutsi denez, ez bacarri legue austeia da pecatu, baitaere ala da legue-austeco arriscu aundiya, edo le-gue austera daraman bidea: fedea gal-tzeco osoro da arriscu aundiya eta bi-de zucena liberalqueriya: beraz peca-tu da.

G. Fedea gordetzeco legueric al dago?

E. Besteric ez.

G. Cer diyoto bada legueac?

E. Jesucristo gure jaunac ala diyo

E. Gobernubai lenengo, eracusten diyela Elizari zor zayon laguntasuna ucatzen: Eliza beraren etsaiari urrengo, masoiari batecere, dotriña galgarriyac zabaltzeco libertadea ematen diyela; baitaere azquenic catolicoai, sinistara-citzen diyela, catolico-liberala izateac eceren oquerriac ez duala.

XI.

Gai-bera.

Gal'dara. Gueyago ote da arrazoi-ric liberalqueriya pecatu dala proba-tzeco?

Erantzueria. Daude beste asco.

G. Esan bizait bada bat.

E. Len eracutsi denez, ez bacarriac legue austea da pecatu, baitaere ala da legue-austeco arriscu aundiya, edo le-gue austera daraman bidea: fedea gal-tzeco osoro da arriscu aundiya eta bi-de zucena liberalqueriya: beraz peca-tu da.

G. Fedea gordetzeco legueric al dago?

E. Besteric ez.

G. Cer diyoto bada legueac?

E. Jesucristo gure jaunac ala diyo

Ebangelioyo santuban: *Sinisten ez duana galduco da betico.* (1)—San Pablo apostoloac berriz ara cer diyon: *Jaungoicoari eciñ gusto eman leyoque fede gabe.* (2)—Elizac eracusten du gñera, gure *salbacioaren asiera*, eta animaco *zuentasun guciyaren cimenduba eta sustraya, fedea dala.* (3)

G. Liberalqueriya nolatan da ordea fedea galtzeco arriscu aundiya?

E. Fedeaz aditzen da, Jaungoicoac aguertu eta Eliza ama santac eracusten duan *guci guciya* sinistea: bañon liberalqueriyac, berari ondo derizquiyona beste gauzaric sinisten ez du, ez beintzat bere contraco dotriñac sinistu nai izaten ez ditu: liberalqueriyac beraz austen du fedea, edo fedea austeco arriscu aundiyan eta bide zuceu-zuceonean dago nalanai ere.

G. Cer gauza edo dotriña dira bada liberalqueriyac sinistu nai ez dituanac?

E. Icusi degunez len, *gaitzeraco* libertadea fedea debecatzen digu, eta liberalqueriyac ontzat dauca libertade ori. — Liberalqueriyac uste duanez, munduco gende edo sociedadeen con-

(1) *Marc.* cap. 16, v. 16.—(2) *Hebr.* cap. 11, v. 6.

(3) *Trident.* sess 6.^a cap. 8.

turic ez du Jaungoicoac; eta fedeac di-
yonez, Jaungoicoa da *gendeac lurrean*
guidatzen dituana. (1)—Baita ere fede-
co gauza da, *munduba bere gauza eta*
persona guciyacquin Jaungoicoarena da-
la; (2) eta beragatican *gende eta aguin-*
tari guciyac bera aitortu eta alabatu
bzar dutela: (3)—Bañon Jaungoicoaren
nagusitasuna orrezaz aztuta ibilli nai
du liberalqueriyac. — Jesucristo-gatic
liburu santubac ala diyote: *lurreco erre-*
queen buruba, errequeen errequea eta
jaunen jauna, (4) cerubau eta lurrean
aguimbide osoa daducana: (5) eta libe-
ralqueriyac Jesucristoren erreguetasu-
na eta aguimbidea, sociedade edo gen-
de-arteracoac beintzat, inola ere ezagu-
tu nai ez ditu.—Eliza santac ere badu,
Jesucristo gure jaaunac emanda, *gende*
eta aguintari guciyai zuentasuna era-
custeco escubedea, lenag. osan dancz:
liberalqueriyac ordea, Elizaren escubi-
de ori ucatu eguiten du, edo aintzaco-
tzat artzen ez du.

G. Al dago beste dotriñic liberal-

(1) Ps. 66, v. 4.—(2) Ps. 25, v. 1.—(3) Ps. 66, v. 5.
Ps. 148, v. 11.—Vide alios plurimos psalmos.—(4)
Apoc. cap. 1, v. 5.—Eodem libr. cap. 19, v. 16.—(5) Vi-
de supra.

queriyac ucatu edo sinistu nai ez duan-
nic?

E. Daude asco.

G. Cer dotriña da batez ere libe-
ralac ucatzen dutena?

E. Liburu santubac diytenez, *Jaun-
goicoa-gandic ezpada aguimbiderican ez
dago; (1) aguintariyac Jaungoicvaren
ordecoac dira; (2) erregueai eta juezai
beren aguimbidea eta indarra Jaungoi-
coac eman ciyen, eta escatuco diye beren
obra eta asmoen contuba ... osoro zorrotza
izango da aguintzen daudenacquin eguin-
go dan juicioa.*—(3) Esaera oyec eta
guisa orretaco beste asco, escritura sa-
graducoac badira ere, liberalqueriyac
choraqueritzat daduzca; bada liberal-
queriyaren ustean, aguintariyac beren
aguimbidea gendea-gandic bacarrican
dute eta ez Jaungoicoa-gandic; aguin-
tariyac, liberalen dotriñaz erara, *gen-
deaquicoa iduqui bear dute*, naiz Jaun-
goicoarequin utseguin.

G. Dotriña batzuec ucatzea asco al-
da bada fedea galtzeco?

E. Baita ere, dotriña bat bacarra
ucatubarequin galtzen da fedea.

(1) *Rom. cap. 13, v. 1.*—(2) *Rom. cap. 13, v. 6.*

(3) *Sup. cap. 6, vs. 4. et 6.*

G. Cergatican?

E. Fedeaz aditzen da, len esan denez, Elizac eracusten dituan dotriña guci-guciyac sinistea: dotriñaren bat, bacarra bada ere, sinisten etzayola beraz Elizari, fedea austen da.—Gañera: dotrina batean adiña arrazoi du dotriña guciyetan ama Eliza santac, bada eguiya bat becela beste guciyac Jaungoicoa-gandic artubac ditu: guci-guciyen sinisten ez bazayo beraz Elizari, ecer-tan sinisten etzayo, baicican gueron iritziya eguiten degu, ónac derizquiyo-gun dotriñac artzen ditugula, eta ez derizquiyo-gunac despreciatzen ditugula.

G. Cer ote diyote gai orrezaz Elizguizonac?

E. Loja-co eta Portoviejo-co obispoac, len icusi degunez, ala diyote: «Fedeaz utseguin gabe liberalqueriyaren esaera edo dotriña guezurti eta biyurriyac inore eciñ artu ditzaque.»

G. Vitoria-co obispo jaunac eta bere lagunac ¿cer eracusten dute?

E. Ara cer: «Liberalqueriyara jarriyarequin ¿cembatec galdu dute, nai gabe eta iguerri gabe ere bai, fedearen gozotasuna aurrena eta fedea bera guero! Ez diyo ecer berac uste badute ere

sinisten dutela; bada duten fedea nola cimen atzen ez baitau Jaungoicoagan eta Elizagan, fede ori ceruraco baliyo ez duana da. *Sinisten dira; bañon sinisten ez dute.* Daucaizquite aire eta izate bat berecoya, Elizarequin eta cerutica-co gaucetan churrac dira, eta datoz iduquitzera cristautasun bat norbere-tzacoa, bacoitzaren sentiera edo uste-coa, beren opiniyo cutunac-quin ondo ez datocen aguinteac eta dotriñac botatzen dituana.

G. Catolico-liberal ascoc beraz bear becelaco federic ez dute?

E. Ez, ez dute.

G. Cergatican bada ez?

E. Eguiyazco fedea balute, au da, Jaungoicoagan eta Elizagan cimendatzen dana, beste eguiyac becela sinistuco lituzquee liberalqueriyaren contracoac ere, bañon orretaraco ez daude. —Gañera: catolico-liberal ascoc ez dute sinisten, eguiya esan nai badute, catolico ez izate *utsagatic* bat infernura joan litequeala; baicican beren ustean Jaungoicoa contentu iduquitzeco, bateasco du onraduba izatea erocer erlijiyotan; beñepein catolico-liberalen papperetan noiznai iracurtzen dira guisa

orretaco gauzac.—Liberal asco dira bada catolicoac, bacarric erlijiyo ori *castaz* datorquiyelaco, edo genderic guenyenac emen inguruban ala diralaco, edo catolicotasunari erlijiyo óna eta mansoa *derizquiyotelaco*; eta ez fedeac eracusten dualaco.

G. Cergatican guoyago federic ez dute catolico-liberal ascoc?

E. Ceruticaco fedea duana, ez dijoa catolico-liberalac becela, eliz-guizonen argaltasunac pocic eta pocic zabaltzera: guchiyago dijoa, masoyac-quin eta Elizaren beste etsayac-quin alcar-artzera catolico on edo osoen contra: eguiyazco fedea duanac, politicari dagozquiyon eguinquizunac erlijiyoaren aurretic jartzen ez ditu, catolico-liberal ascoc jartzen dituzten becela.

G. Eta cergatican ote da liberalqueriya pecaturic *aundiyyenetaco* bat?

E. Jaungoicoarequico gorroto nabarmena quentzen dala, fedearen contra eguiten diran pecatubac dira berez aundiyyac: fedearen contraco pecatuba da liberalqueriya, icusi danez: liberalqueriya beraz pecaturic andiyyenetacoa da.

G. Jauncoicoarequico gorroto nabarmena ascoc al dute?

E. Infernuban dauden guciyac dute; bañon munduban guchi dira beraiz edo zucenean Jaungoicoa gorrotatzen dutenac.

G. Pecatari guciyac ez dira bada Jaungoicoa gorrotatzen dutenac?

E. Nolerebait edo cearrean bai, pecatari guciyac dira Jaungoicoari gorrotoa diyotenac; bada pocic artuco luquee *infernura ez joateagatican*, Jaungoicoric ez izatea: bañon beraicicaco gorrotoa, edo egui-eguiyazcoa, guchi dira Jaungoicoari aguertzen diyotenac.

G. Ceñ ote dira oyec?

E. Beintzat ala dira, Jaungoicoaren contraco ateraldi edo blasfemiya jacquiñaren gañean eta beraiz esaten dituztenac: eta are gueyago ¡Jaungoicoari guerra! otseguiten duen gende ichu, lotsagabe eta milla bider errucarriyac.

G. Fedearen contraco pecatubac ¿cergatic dira aundiyenac?

G. Sustraya quendu edo galdubarequin eguiten zayo gaitzic aundiyna arbola bati: ceruraco escatzen dan *zucentasunaren sustraya* da fedea, len esan dancz: fedearen contraco pecatu-

bae dira beraz aundiyeñac.

G. Ote da beste arrazoiric esan dan ori sinistarazotzeco?

E. Daude asco.

G. Esan bizat bada bat.

G. Seta gaiztoz edo berariz becela eguiten diran pecatubac, argaltasunaz eguiten diranac bañon aundiyoac dira, len naicua esan danez: fedearen contraco pecatubac argaltasunez bañon guoyago eguiten dira apetaz edo citalqueri batez, eta bestelaco pecatubac berriz contrara; len esan ere danez: fedearen contraco pecatubac beraz, bestelacoac bañon aundiyoac edo oqueragoac dira.

G. Eman bizat beste arrazoi bat.

E. Fedea duanac, oquerric aundiyeñac ere noiz nai zucendu ditzaque, eta alá pecatariric galdubena salbatu diteque: fedea galtzea beraz oquerric aundiyeña edo pecaturic larriyeña da bereaz, Jaungoicoarequico gorroto nabarmena apartatzen dala.

G. Elizac al diyo ecerere orain aitatu dan gai orrezaz?

E. Beste pozgarriyen artean, iltze-co dagoan bategatic ára cer oraciyo eguiten diyon Jaungoicoari iltzen la-

gundu oi duanaren aotic: «Etzaitecela oroitu, Jauna, aserreac edo gogo gaiztoren berotasunac len eraguin ciyozcan oquer eta eroqueriaz; bada pecatu eguin izan badu ere, ucatu ez du ordea Aita, eta Semea, eta Espiritu Santuba: baicican *sinistu izan du, eta Jaungoicoaren celoa beragan iduqui izandu du*, eta gauza guciyac eguin cituan Jaungoicoa leyalquiro *adoratu izan du.*»

G. Gauza aundiya da orduban fedea?

E. Osoro da aundiya eta prochugarriya, icusi danez: eta fede-auste, edo dotriña gaiztotara itsatsitzea, beragatican da pecatu osoro aundiya eta caltegarriya, arbolaren sustraya galdu edo usteltzea osoro oquer aundiya litzaquen becela.

XII.

Gai-bera.

Galdera. Aita Santubac eta obispo jaunac liberalqueriya pecatu mortaltzat ote daducate?

Erantzuer. Aissa daducate pecatu mortoltzat.

G. Probatuco liquet?

E. Bai, eta osoro erraz alaere.—

gundu oi duanaren aotic: «Etzaitecela oroitu, Jauna, aserreac edo gogo gaiztoren berotasunac len eraguin ciyozcan oquer eta eroqueriaz; bada pecatu eguin izan badu ere, ucatu ez du ordea Aita, eta Semea, eta Espiritu Santuba: baicican *sinistu izan du, eta Jaungoicoaren celoa beragan iduqui izandu du*, eta gauza guciyac eguin cituan Jaungoicoa leyalquiro *adoratu izan du.*»

G. Gauza aundiya da orduban fedea?

E. Osoro da aundiya eta prochugarriya, icusi danez: eta fede-auste, edo dotriña gaiztotara itsatsitzea, beragatican da pecatu osoro aundiya eta caltegarriya, arbolaren sustraya galdu edo usteltzea osoro oquer aundiya litzaquen becela.

XII.

Gai-bera.

Galdera. Aita Santubac eta obispo jaunac liberalqueriya pecatu mortaltzat ote daducate?

Erantzuer. Aissa daducate pecatu mortoltzat.

G. Probatuco liquet?

E. Bai, eta osoro erraz alaere.—

Aita Santubac eta obispo Jaunac, icu-si degunez, liberalqueriya osoro osoro gaiztotzat daducate, gauza bat osoro goiztotzat iduquitzea, pecatu aunditzat iduquitzea adiña da. Aita Santuben eta obispoen esaeretan beraz pecatu aundi-ya da liberalqueriya.

G. Gauza bat osoro gaiztoa danean ¿cergatican iduqui bear da ordea pecatu aunditzat?

E. Len esan danagatic: au da, gaiztaqueri guciya pecatu dalaco, eta pecatuba berriz gaitzaren neurricoa dalaco.

G. Pio bederatzigarrenac ez al zuan eracutsi beste era batzuetara liberalqueriya pecatu mortala dala?

E. Len aitatu diran arguibideetaco batean, ara cer eracusten duan: Elizari dagozquiyon gaucetan Aita Santuben esanac eta epayac ontzat ez artzea eta ez obeditzea, *pecatu da*, eta *catolicotasunean ere utseguiten da* (1).—Pio bederatzigarrenac eracusten duanez beraz, liberalac pecatu eguiten dute, Aita Santuben esanac eta bereu epayac ontzat ez daducaztelaco, edo berari obeditzen ez diyelaco, ez beintzat liberalqueriya-

(1) *Encecl. Quanta cura.*

ren gayan; eta eguiten duten pecatu ori larriya da, bada catolicotasanean utseguiten dute, eta catolicotasunean utseguitea osoro da gaitz aundiya.

G. Pio bederatzigarrenac nolatan gañera eracutsi zuan pecatu larriya dala liberalqueriya?

E. Dotriña ori bera dacarten liburubac outzat ematen cituala.

G. Cer liburu dira oyec?

E. Bata da beintzat, Francia-coeliz-guizon celotsu batec, Segur ceritzayonac, esribitu zuana. (1)

G. Cer diyo bada liburu orrec?

E. Beste gauza egoqui ascoren artean, ala diyo: «Gauza jaquiña da, dotriña liberalac agniriyen edo ezcutuban iduquitzea eta beretatic dacazquigun ondorenac, Aita Santuben esanai zor zayen obedienciyaen contra dijoacelaco, *pecatu larriyaren gaya* dutela. Ez det esaten, onetan pecatu larriya eguiten dala *beti*; bacoitzaren barrengo berri jaquitea, bacarric Jaungoicoari dagoquiyo. Bai, esaten det, eta dudarie gabecotzat daducat au, *pecatu mortalaren gaya* dagoala orretan.»

(1) *Homenage*, vide cap. 8.º in fine.

G. Aita Santu Leon amairugarrenac liberalqueriya pecatu larriya dala eracusten ote du, len esan danaz gñera, beste moduren batez?

E. *El liberalismo es pecado* liburuchoac dacarren dotriña ontzat ematen du, len cearo icusi danez; eta liburu orretan eracusten da liberalqueriya ez bacarric dala pecatu *larriya*, baitaere pecaturic *aundiya*; Jaungoicoarequico gorroto nabarmena apartatu ezque-roz.

G. Cer itz daude liburucho orretan gueyen-gueyena gogoan artzecoac?

E. Beste batzuen artean oyec: «Guciyetan pecaturic astunenac fedearen contracoac dira.... Liberalqueriya beraz, fede-austea izanic, eta obra libera-lac, fede-austeco obrac izanic, cristau-ben legueco pecaturic aundiyaenac dira. Argatican liberala izatea, blasfemoa lapurra, adulteroa, eriotzaguillea, edo Jaungoicoaren legueac debecatzen duan beste erocer gauza bañon pecatu gue-yago da, gauza óna dalacoan, ez jaquiñean eta uste gabeen ezpadá bat libera-la.... Bai, fede-austea eta fede-austeco obrac dira pecatu guciyetan oquerre-nac; eta beragatican liberalqueriya eta

eguite liberalac dira, *berenez*, gaiz guciyaren gañeco gaitza.» (1)

G. Eta obispo jaunac ¿cer diyote gai orrezaz?

E. Portoviejo-co obispoac ascotan aitatu dan carta berean, ala diyo: «Bai, gaiztoa da liberalqueriya, eta *da peccatu*, bada Jaungoicoric eta erlijijoric gabeco *libertadea da.*»

G. Vitoria-co obispo jaunac eta bere lagunac ez al diyote ecerere?

E. Bai, naicoa alaere.

G. Cer diyote bada?

E. Ara cer: «liberalqueriya bere izatez izango da beti cristauben fedea sustraitic ucatzea, naiz nabarmen edo naiz zomorrequiro; eta argatican utzi bear da bera contuz, animac salbatu bear diran becela.»—Obispo oyen esae-ran beraz, pecatu mortala da liberalqueriya, bada pecatu mortalarequin baccaric galtzen dira animac.

G. Cer besterican diyote?

E. Ara cer: «Liberalqueriya pecatu ez dala esango dute, eta *onenean* beti izango ez du culparic liberalqueriya nai duanac; bañon dotriña guezurtiya

(1) Vide cap. IV.

da (liberalqueriya) eta *berez pecatu*, eta laguntzen du beti guereneco dotriña guezurtiyac zabaltzen.»—Vitoria-co obispo jaunaren eta bere lagunen esaretan beraz liberalqueriya *berez pecatuda*: eta *laguntzen dualaco beti* dotriña guezurtiyac zabaltzen, da pecatu larriya.

G. Ecuador-co zazpi obispoac alcarrequin escriptu zuten cartan iracurtzen ote da ecerere darabilquigun gayaz?

E. Carta orrec ala diyo: «Liberalqueriya eta bere dotriña guezurtiyac ez botatzea, aimbeste debecu emanagatican ala ere liberalqueriyan jarraitzea *pecatu aundiya da batere dudaric gabe, eta orrezaz damutu nai ez dutenac absoluciyoric mereci ez dute penitenciyacotribunalean, eta betiraunde guciraco galtzeco estaduban arquitzen dira.*

Cer esanic ez dago gauza oyen contra, pecatu mortalaz aditzen dan ezquero, gai aundiyan beartzen duan legueren bat austea.»

G. Beste gañeraco obispoac ¿cer esan dute gai orrezaz beraz?

E. Ceñec bañon ceñec gogozago eracutsi nai digute, liberalqueriya oso-

ro dala pecatu aundiya: ez da beraz batere arritzecoa dotriña ori dacarten liburubac ere ontzat eman badituzte.

G. Cer liburu dira nabarmenenac becela?

E. Len aitatu diranaz gañera, ala dira bi: bata Españan eta bestea Belgican dembora guchiz unuztican arguitaratu diranac obispo ascoren baimenarequin.

G. Cer iracurtzen da liburu oyetan?

E. Lenengo aitatu danac, ara cer galdetu eta erantzuten duan: «Liberala izatea beraz *pecatu da*?—Eta *mortal* alaere.» (1)

G. Eta bigarren liburubac ¿cer dacar?

E. Probatzen du cearo, *pecatu larriya* eguiten dala liberalqueriya jarraitubarequin, eta *pecatu ori fedearen contracoa* dala. (2)

G. Liberalqueriya infernuraco bidea da orduban?

E. Pecatu mortal eta larri guciya da infernuraco bidea: baitaere beraz liberalqueriya ala da.

G. Liberala izatea, beste pecatu gabe, joan al diteque bat infernura?

(1) Opusc. *Norma del católico*, cap. 2.^o, sect. 4.^a

(2) *Causas conscientiae*, pars 1.^a, quæstio 2.^a

E. Bai aissa ere.

G. Cergatican?

E. Lenago icusi danez, liberala izatea berez osoro da pecatu aundiya: lapurra, eriotzaguillea, araguicoya, blasfemoa (Jaungoicoarequico gorroto nabermena gabe,) eta bestelaco erocēñ gaizquille izatea bañon pecatu aundi-yagoa da: aitatu diran gaizquilleac, eta oyen antzecoac, fedecac eracusten duanez, infernura dijoaz: eguiyazco liberalac beraz arrazoi gueyagorequin dijoaz.

G. Gauza gogorra da ori, eta sinistu ere ecin ditequeana.

E. Orretara ezquero, are gogorragoa da, eta sinistu bear ere dana, naguitasunaz jayeguneco meza uztea, atseguin loi debecatubac, argaltasunaz eta dem-bora osoro piscan eguin litezquean pecatu mortal guciyac, infernuraco beste aimbeste bide dirala.

G. Orain azquenean eracutsi dan dotriña sinistarazotzeco ¿cer guertaera edo irudi jarri litezque?

E. Aingueru gaiztoac edo deabrubac *gogo utsez* eta *une bacarrean* eguin zuten pecatu mortala-gatic infernuratu ciran: fruta debecatuba janarequin

Adam eta Ebac eguin zuten pecatu larriya-gatic, berac eta beren ondorengoac infernuraco bidean, edo cerutic erbestetubac gueratu ciran, baitaere gorputzaren aldetic il bearrean: batere ez da beraz arritzecoa, eguiyazco liberalac infernuraco bidean egotea; bada oyen pecatuba larriya izateaz gañera, setaz eta luzaroan eguiten dana izan oi da.

G. Confesatu bearco da beraz liberalqueriya?

E. Ezagutzen ditugun pecatu larri guciyac aitortu bear ditugu confesioan; baitere beraz liberalqueriya, barcatuco bazaigu, confesatu bear da, confesatu al ditequeala.

G. Eliz-guizonac al diyote ecerere gai orrezaz?

E. Ecuador-co obispo jaunac, len esan danaz gañera, ala diyote: «Aditzen bada beraz ondo liberalqueriya, *utsequite aundi bat da, da pecatu mortala*, confesoreac eta confesatzen diranac contuz icusi bear dutena, sacramentu santubac artu bear diran guciyan.»

G. Liberalqueriya utzi nai ez diyonari barcatu leyoque pecatu ori?

E. Ezta inolaere; bada [pecaturen

bat barcatuco bazaigu, bera confesoreari aitortzeaz gañera, pecatubaren eguiyaz-co damuba bear da, baitaere aurrera artatic eguiñalean aldeguiteco asmo sendo eta eraguillea.

G. Liberalentzat beraz barcaciyorie ez dago?

E. Ez, ez dago; ez mundu onetan eta ez bestean.

G. Cergatican ori?

E. Espiritu Santubaren contra pecatu eguiten duanari, ez mundu onetan eta ez bestean barcatzen zayo, len esan danetz: liberalqueriya utzi nai ez dute-nac Espiritu Santubaren contra eguiten dute pecatu: liberalentzat beraz, ez mundu onetan eta ez bestean dago bar-caciyorie.

G. Nolatan da ordea liberalqueriya Espiritu Santubaren contraco pecatuba?

E. Espiritu Santubaren contraco pecatubac, len adieraci danetz, apetaz, seta gaiztoz edo beraiz eguiten diranac dira: beraicicaco pecatuba, edo setaz eguiten dana, da liberalqueriya: au be-raz Espiritu Santubaren contraco pe-catuba da.

G. Liberalqueriya cergatican da be-

raiz edo setaz eguiten dan pecatuba?

E. Odol otzarequin edo beraiz eguin oi diran pecatubetatic bat, len esan danez, ezagutzen dan eguiya ucatu eta perseguitzea da; liberalqueriyac badaqui, ematen zaizcan argui bideac icusiric, catolicotasuna eguiyan dagoana, eta ala ore ncatu eguiten du ori, eta gauzai beste colore bat emanaz perseguitu eguiten du eguiya: liberalqueriya beraz beraicicaco pecatuba da.

G. Cergatican gueyago da liberalqueriya setaz eguiten dan pecatuba?

E. Setaz eguiten diran pecatubetatic beste bat, len ore esan danez, pecatuba ez utzi naya da: ecergatican ere utzi nai ez dute liberalac beren bandera beltza, nayago dute Satanas edo *deabruba* beraren alde ibilli, ez catolico osoen banderan sartu, liberalac berac esan oi dutenez: apeta gaizto bat, seta galgarri bat besterican ez da beraz liberalac beren hide oquerrean daduzcana.

G. Liberalac infernuraco dira orduban?

E. Eguiyaz edo benaz damutzen balira ez: bañon beldur izatecoa da, liberal asco beren teman edo pecatuban

illico dirala, eta orduban bai, infernura-co liraque: aditzen da beti, liberalen pecatuba, pecatu mortalera iristen bada.

G. Liberalaren iceneco guciyac eguiten al dute pecatu?

G. Eguiten dute, liberalqueriya jaquiñaren gañean nai dutenac, eta beraren alde, gaitza ezaguturic, cerocer eguiten dutenac.

XIII.

Aintzacotzat ez dagoan gaitza.

Galdera. Cer da catolico on ascoc aintzacotzat ez daucatona?

Erantzuer. Liberalai beren eguin-quizun edo lanetan laguntzea.

G. Liberalaren icena ez eramanagerican beraz, liberalen laguntzalle izatea, gauza gaiztoa da?

E. Osoro da gaiztoa.

G. Cergatican bada?

E. Liberalqueriyari eustea osoro da gauza gaiztoa: liberalen laguntzalleac liberalqueriyari eusten diyote: liberalen laguntzalle izatea beraz osoro da gaiztoa.

ilco dirala, eta orduban bai, infernura-co liraque: aditzen da beti, liberalen pecatuba, pecatu mortalera iristen bada.

G. Liberalaren iceneco guciyac eguiten al dute pecatu?

G. Eguiten dute, liberalqueriya jaquiñaren gañean nai dutenac, eta beraren alde, gaitza ezaguturic, cerocer eguiten dutenac.

XIII.

Aintzacotzat ez dagoan gaitza.

Galdera. Cer da catolico on ascoc aintzacotzat ez daucatona?

Erantzuer. Liberalai beren eguin-quizun edo lanetan laguntzea.

G. Liberalaren icena ez eramanagerican beraz, liberalen laguntzalle izatea, gauza gaiztoa da?

E. Osoro da gaiztoa.

G. Cergatican bada?

E. Liberalqueriyari eustea osoro da gauza gaiztoa: liberalen laguntzalleac liberalqueriyari eusten diyote: liberalen laguntzalle izatea beraz osoro da gaiztoa.

G. Cergatican da añ gauza gaiztoa liberalqueriyari eustea?

E. Osoro da gauza gaiztoa liberalqueriya, icusi denez: liberalqueriyari eustea, liberalqueriya nai izatea adiña da; bada liberalqueriya nai ez balitz eutsico ez litzayoque berari: liberalqueriyari eustea beraz, osoro da gaiztoa.—Gañera: liberalqueriyari eutsiya-requin, iraupena ematen zayo berari: eta iraupena ematea, liberalqueriya nai izatea besterican ez da.

G. Eta eguiya da lilberalen laguntzalleae liberalqueriyari eusten diyotela?

E. Bai, ala da.

G. Probatu bizait.

E. Liberalqueriric ez legoque liberalac-gabe: liberalac berriz, daducaten indarra ez leucaquete, laguntzalleac ez balituzte; ezta ere eguingo ez lituzquee; laguntzalleric gabe, erligiyoaren contra eta animen caltean eguiten dituzten charqueri asco: liberalai lagundubarequin beraz, liberalqueriyari eusten zayo.

G. Cergatican gueyago da añ gauza gaiztoa liberalen laguntzalle izatea?

E. Osoro da gaiztoa lagun urcoari

gaitz-bidea edo escandaloa ematea: liberalen laguntzalle izatearequin, escandaloa ematen da: liberalen laguntzalle izatea beraz, da osoro gauza gaiztoa.

G. Eta ¿cergatican da orren gaiztoa gaitz-bide edo escandaloa?

E. Jesusi bere odola costataco anima gajoac galtzen ditualaco: edo animen eiztari, Satanas gaiztoaren sarea besterican ez dalaco.

G. Nola adierazten da escandaloaren pisutasuna?

E. Jesucristo gure jaunaren itz oequin: «Gaitz-bidea ematen duanac obe luque, *errotarri pisu bat berari lepoan ipiñi eta ichaso-pean ondatzea. ¡Ay munduba gaitz-bideac-gatic! Izan bear dute munduban gaitz-bideac: bañon ¡ay gaitz-bidea ematen duan hura!* (1)

G. Noiz edo nola ematen da ordea escandaloa?

E. Inoren aurrean gauza gaiztoren bat, edo gaiztoa *dirudiyena*, esan edo eguiten dan guciyan.

G. Gaiztoa ezpada ere beraz gauza bat, ala badirudi ordea, utzi eguin bearco da?

(1) *Math.* cap. 18. vs. 6 et 7.—*Marc.* cap. 9. v. 41.

E. San Pablo apostoloac ara cer diyon: «*Gaitzaren ichura edo irudiya duan guciya utzi ezazute.*» (1)

G. Cer diyo guoyago santu orrec bere dotriña adierazteco?

E. Berac araguiya janarequin gaitz bidea artzen bazuan lagun urcoac, beñere jango etzuala araguiric, lagun urcoari gaitz-bideric eman etzeyon. (2)

G. Cergatican debecatzen da gaitzaren irudiya?

E. Gaitzaren irudiyan lagun urcoac gaitza bera icusten du, baitaere icusi duana eguiteco gogoa ascotan artzen du; bada aín macurtubac gaude gaitzera.

G. Nolatan ematen dute escandaloa liberalen laguntzalleac?

E. Liberalac dirala adierazten dute, edo liberalqueriya gaiztoa ez dala sinistaracitzen dute, eta muguitzen dituzte orrela liberal izatera, bestela izango ez liraquen asco.

G. Pecatu da orduban liberalen laguntzalle izatea?

E. Aissa da pecatu.

G. Cergatican bada?

(1) I Thess. cap. 5, v. 22.—(2) I Cor. cap. 8, v. 13.

G. Gaiztaqueri guciya da pecatu, asetzeroa ere esan danez: liberalen laguntzalle izatea gaiztaqueriya da, orain icusi degunez: liberalen laguntzalle izatea beraz pecatu da.

G. Pecatu aundiya edo chiquiya da?

E. Aundiya berez: bada gaitzaren neurricoa da beti pecatuba; eta icusi degunez osoro da gaiztoa liberalen laguntzalle izatea.

G. Liberalen laguntzalle *guciyac* eta laguntzen duten *guciyen* eguiten al dute pecatu larriya?

E. Ez: bada pecatu larriya eguiteco escatzen dan ezagüera edo borondatea laguntzalle *guciyac* izaten ez dute: eztaere caltea, liberalai laguntzetic datorrena, beti-beti ez da aundiya.

G. Liberalai lagundubarequin noiz eta zer pecatu eguiten dan jaquiteco zer da catolico onac eguin bear luquetena?

E. Errico beren apaiz-nagusi edo erretore jaunari, edo eta confesore jaquintsu eta birtutetsu bati galdetu.

G. Cergatican guoyago ote da pecatu larriya liberalen laguntzalle izatea?

E. San Pablo apostoloaren esacran, *eriyotza mereci dute, ez bacarric gauza*

gaiztoac eguiten dituztenac, baitaere eguiten dituztenai ontzat ematen diztenac: (1) beraz ez bacarric liberalac mereci dute eriyotza, baitaere beren dotriña edo charqueriyac ontzat daduzcatenac, eta arrazoi gueyagorequin berai laguntzen diceenac, ala mereci dute: bañon eriyotza mereci duten gaiztaqueriyac pecatu larriyac oi dira; baitaere beraz pecatu larriya da liberalen laguntzalle izatea.

G. ¿Ceñ dirade ordea liberalen laguntzalleac?

E. Beintzat ala dirade, dotriñarie gabeco escoletara umeac, eta erlijiyoguchico edo gaiztoco maisnabetara gazteac biraltzen dituztenac: liberalen jolasac eta festetan ibiltzen diranac: berai botoac ematen diztenac: eta liburu edo gaceta liberalac iracurri, edo eta oyetan diruba gastatzen dutenac.

G. Nolatan dirade liberalen laguntzalleac esan diraden escola eta maisnabetara ume edo gazteac biraltzen dituztenac?

E. Oraingo ume eta gazteac bigarco mundubaren aciya eta landareac bece-

(1) Rom. cap. I, v. 32.

la dirade: aitatu diraden escola edo maisubetara ume eta gazteac biraltzea, bigarco munduba liberaltzea adiñasse da: dotriña gabeco escoletara umeac eta erlijiyo guchi edo gaiztoco maisubetara gazteac biraltzen dituztenac beraz oso-ro dirade liberalen laguntzalle aundi-yac.

G. Esan diraden escola eta maisubetara ume eta gazteac biraltzea ¿cergatican da bigarco munduba liberaltzea adiñasse?

E. Orrelaco escola eta maisuaquin oquerqueriya, gaiztaqueriya edo liberalqueriya besterican icasi eciñ deza-quete ume eta gazteac: umetan eta gazetetan artzen dan bide oquer, gaizto edo liberala, osoro nequez utzi oi da: (1) esan diraden escola eta maisubetara ume eta gazteac biraldubarequin beraz, bigarco munduba liberaltzen da.

G. Cer irudiyaquin adieraci diteque obetogo dotriña ori?

E. Aci charrac frutu ónac eciñ eman ditzaque; eztaere oquer datorren landare edo arbolachoa gueroenean zucentzen ez da: eta era berean ume gaiztoac

(1) Prov. cap. XXII, v. 8.

edo mundubaren aci-ale charrac ondo-
ren ónic ez dacarte; eta gaizqui acitaco
gazteac edo landare oquerrac, zucendu
edo onduco diraden bañon lenago autsi
edo ilco dirade, gueyenean icusten da-
nez.

G. Vitoria-co obispo jaunac eta be-
re lagunac ¿al diyote ecerere gai orre-
zaz?

E. Bai, eta ara cer. «Bear becela-
coa izango bada aciera, *gauza bearra da*
lenengo: aurrari cristauben dotriña era-
custea..... *gauza bearra da* eta zaindu
bear dute gurasoac beren semeac erori
ez ditecen *gaizqui eracutsi leyequeten*
maisuben escubetan. Zorigaiztoz orrela-
co maisubac baldin baditu gazte batec,
seguru becela eman diteque heraren
galera.»

G. Liberalen jolasa edo festetan da-
biltzanac ¿nolatan dirade liberalqueri-
yaren laguntzalleac?

E. Cembat eta gende gueyago icus-
ten duten liberalac beren festa eta jola-
setan, orduban eta gogo aundiyagoare-
quin eta sarriyago eguiten dituzte: oso-
ro dirade liberalqueriyaren bide zucen
eta egoquiyac aitatu diraden festa edo
jolasac: oyetan dabilztzanac beraz, li-

beralqueriyaraco bide-emalleac becola, osoro dirade beraren laguntzalle aundi-yac.

G. Cer festa edo jolasa dirade liberalac gueyenean eguin oi dituztenac?

E. Soñu atseguingarriyaquin bataraco dantza *loyac*, gaubetaco bulla eta caleac corritzea, *comediya* eta *teatro* edo icusgarri *lasayac*, jocubac eta gueyeguico jan-edanac.

G. Nolatan dirade ordea gauza oyec liberalqueriyaraco añ bide egoquiyac?

E. Liberalqueriyaraco bideric zuzen edo erracena biyotza usteldu edo gaiztotzea da: esan diraden gauzac osoro dirade persona gaiztotzeco egoquiyac, bada añ macurtubac gande gaitzera: liberalen festa eta jolasac beraz osoro dirade liberalqueriyaraco bide egoquiyac.

XIV.

Botoac.

Galdera. Esan diraden contubetan liberalai botoac ematea gauza gaiztoa da?

Erantzuer. Izatez osoro da gaiztoa.

G. Cergatican bada?

beralqueriyaraco bide-emalleac becola, osoro dirade beraren laguntzalle aundi-yac.

G. Cer festa edo jolasa dirade liberalac gueyenean eguin oi dituztenac?

E. Soñu atseguingarriyaquin bataraco dantza *loyac*, gaubetaco bulla eta caleac corritzea, *comediya* eta *teatro* edo icusgarri *lasayac*, jocubac eta gueyeguico jan-edanac.

G. Nolatan dirade ordea gauza oyec liberalqueriyaraco añ bide egoquiyac?

E. Liberalqueriyaraco bideric zuzen edo erracena biyotza usteldu edo gaiztotzea da: esan diraden gauzac osoro dirade persona gaiztotzeco egoquiyac, bada añ macurtubac gande gaitzera: liberalen festa eta jolasac beraz osoro dirade liberalqueriyaraco bide egoquiyac.

XIV.

Botoac.

Galdera. Esan diraden contubetan liberalai botoac ematea gauza gaiztoa da?

Erantzuer. Izatez osoro da gaiztoa.

G. Cergatican bada?

E. Lenago esan diraden arrazoyagatic: au da, liberalqueriyac osoro indar aundiya artzen dualaco: eta lagun urcoai gaitzeraco bidea ematen zayelaco.

G. Liberalqueriyac ordea ¿nola artzen du alaiñoco indarra botoac liberalai emanarequin?

E. Guizonac aguimbidean jartzeco izaten dirade botoac: eta croceñec daquiyaner, aguimbideac beti du berequin osoro indar aundiya: botoac liberalai emanarequin beraz, liberalqueriyac osoro indar aundiya artzen du.

G. Aguimbidea liberalac dutenean ¿cer oquerrac etorri oi dirade?

E. Contatu ere eciñ litezque, bañon guciyac sartzen dirade bitan: bata da. Elizaren aldeco bideac piscabanan-piscabanan estutzea: eta bestea da, gaitzeraco libertadeac eguiñala guciyan zabaltzea.—Nolanaire beintzat, guchiyen-guchiyena eguin oi dutena liberalac aguimbidean da, erlijiyoco gauzac aintzacotzat ez artzea, eta liberalqueriyari bere bidean joaten uztea.

G. Elizaren aldeco bideac ¿nola estutu oi dituzte liberalac.

E. Apaizai gende-arteraco sar-bidea quenduta; erromeriyac edo peregrina-

ciyoac, eta Eliz camporaco procesiyoac galeracita; sermoiguilleric ónenac edo eguiya esan-zaleac, carcelerazo, edo perseguituta; erlijiotsubac comentubetatie botata; obispo jaun celotsubenac erbestera biralduta; Elizari bere lurra edo aberastasunac lapurtuta; Aita Santuba libertade gabe utzita; eta beste era ascotara.

G. Gende arteraco sar-bidea apai-zai nola quentzen dizee liberalac?

G. Errenta chiquiyac marcatubaz gañera, aguiyiac edo *certificadubac* eguiteco escubidea ucatuta.

G. Cergatican galeraci izan dituzte liberalac peregrinaciyo edo erromeriyac eta caleetaco procesiyoac?

E. Orrelaco gauzaquin catolico osoen bandera gucitu edo pizcortu litequean beldurra-gatic: baita ere lotsa eta barrengo quezca senti izan dituztelaco, catolico ónac eliz funciyoetan dabilzan bitartean beren burubac cafean, casino edo jolas-lecuban icusiric.

G. Eta sermoiguille ónac ¿nola perseguitzen dituzte?

E. Ebangeliyoz campoco gaucetan, edo politican sartzen diran irudi-pen farragarriyarequin.

G. Eta erlijiotsubac ¿cer aitzquirequin botatzen dituzte comentubetatic?

E. Alpertzar batzuec besterican ez diran aitzahui gaiztoarequin.

G. Obispo jaunac ¿cergatic biraltzen ote dituzte erbestera?

E. Gobernubac erlijiyoco eguinquinzunetan berenez sartutacoan eguiyac esaten ditzelaco, edo gobernubai nai dutena eguiten issillic uzten ez ditzelaco.

G. Liberalac ¿nola lapurtu cizten Elizari bere ondasunac?

E. Jesucristoren antzera pobrea izan bear duan ateraldi zoroarequin; eta urteoroco errenta edo irabaciyaquin ordainduco ciyozeaten aitzahui ederrarequin.

G. Cer errenta ematen diye bada orain Elizari?

E. Bere premiyac estaltzeco ere iristen etzayona; edo arlotequeriyan iduquitzeco adiña, besterican ez.

G. Aita Santuba ¿cergatican daducate liberalac preso becela edo libertadegabe.

E. Italia-co gobernubarequin iñola ere autsi nai ez dutelaco; eta dagoan erara mendeago iduquico duten ustean.

G. Eta cer libertade dirade liberalac aurrenengo zabaltzen dituztenac.

E. Erlijiyoac gendeari auqueran jartzea, alaiñoco premiya gabe; nai dana escriptu edo moldizquiratzea; umeen escoletatic dotriña quentzea; gazteen icas-lecubetan nai dana eracustea, naiz eguiyazco erlijiyoarequin ondo etorri ez dotriñac; eta eliza gabe ezcontzea.

G. Erlijiyoac auqueran jartzeac ¿cer dacar?

E. Erlijiyo guciyac onac diran irudipen gaiztoa; eta guciyetaraco gendearen arduragabequeriya.

G. Eta nai dana moldizquiratzeco libertadeac ¿cer ecarri du?

E. Dotriñaric galgarriyenac zabaltzea, animen eta munduco zorionaren caltean.

G. Umeai dotriña ez eracusteac ¿cer gaitz du?

E. Jaungoicoaren beldurric gabeac irteten dira, baita ere beraz gaitzeraco osoro errazac eta gueroenean ecitzen nequezac.

G. Icas-lecubetan gazteai nai dana eracutsiyarequin ¿cer ondoren datoz?

E. Gurasoetatic icasitaco dotriña eder eta gozoac aztutzen zaizte, edo eta

choraqueritzat artzen dituzte; eta animari dagozquiyon gauzac piscabanan ntziric, alperqueriyan, jocuban eta loi-queriyan ibiltzea, bestetan pensatzen ez dute.

G. Cergatican ipiñi nai izaten dute Gobernu liberalac eliza gabeco ezcontza?

E. Cristautasuna, beren gogoz, cimensutic quentzeagatican: bada eliza gabeco ezcontzetatic, cristautasun gabeco familiyac letozque; eta orrelaco familiyetatic sortuco litzaquen gendetza edo sociedadean ere cristautasunicez legoque: eliza gabeco ezcontzac eguiteco libertadea beraz, cristautasuna bere oñetic quentzea becela da.

G. Eta eguiya da, botoac liberalai emanarequin escandaloa edo gaitz-bidean ematen dala?

E. Aissa da eguiya.

G. Cergatican bada?

E. Liberalai botoac ematen dizte-nac, liberalac diradela edo liberala izateac gaitzic ez duala adierazten dute; eta orrequin liberalqueriraco bidea edo berogarri bat ematen da.

G. Obispo jaunac ¿cer eracusten dute gai orrezaz?

E. Vitoria-coac eta bere lagunac ara cer diyoten: «Ez eman *beñere zuen botoac*, eguiyazco catolicoac, Eliza santaren seme umill, errespetotsuac eta mendecoac ez diranai.»—Obispo jaun borondatetican beraz, botoac liberalai *beñere eman bear etzaizte*: bada icusi degunez naicoa, liberalac ez dira eguiyazco catolicoac, ez Eliza santaren ume umill, errespetotsu eta mendecoac.

G. Botoac liberalai ematea osoro da beraz errebesqueri aundiya?

E. Bai; bada iñore ez daqui, aguimbidean liberalac jarriyarequin, combaterañoco oquerrac eta calteac etorri litezquean.

G. Pecatu izango da orduban liberalai boto-ematea?

E. Liberalen laguntzalle izatea, len esan danez, pecatu da, eta pecatu larriya alaere: baitaere beraz ala da liberalai boto-ematea.

G. Catolico ónac ondoena nola asmatuco luquee *noiz* eta *nori* botoac eman?

E. Errico apaiz-nagnsiyarequin, edo eta confesore jaquintsu eta birtutesu batequin egonda.

XV.

Liburu eta Gacetac.

Galdera. Liberalen liburu eta paperac iracurtzea ¿gauza gaiztoa al da?

Erantzuer. Osoro gaiztoa.

G. Cergatican?

E. Fedea galtzeco, edo liberalqueriya itsatsitzeco arriscu aundi guciya da osoro gaiztoa: liberalen liburu eta paperac iracurtzea, fedea galtzeco edo liberalqueriyara itsatsitzeco arriscu aundiyan jartzea da: aitatu diran liburu eta paperac iracurtzea beraz, osoro da gauza gaiztoa.

G. Eta fedea galtzeco, edo liberalqueriyara itsatsitzeco arriscu aundi guciya ¿cergatican ote da orren gaiztoa?

E. Esana dago len, gaitz aundiraco arriscuba, borondatezcoa eta alde-aldecoa edo urrecua danean, osoro dala gaiztoa edo pecatu larriya: baitaere esan da asetzerano, fede-austea eta liberalqueriya oso dirala gaitz aundiyac: orretaraco arriscuba ere beraz, erocer dala, borondatezcoa eta urrecoa izan ezquero, osoro da gaiztoa.

G. Liberalen liburu eta paperac

orren arriscu aundiyac dira fedea galdu edo liberalqueriyara itsatsitzeco?

E. Bai, ala dira.

G. Cergatican hada?

E. Liberalqueriyara itsatsitzeco bideric zucenona edo peligroric aundiye-na, dotriña guezurti eta gaiztoac aditu edo iracurtzea da: liberalen liburu eta paperac noiznai dacaizquite alaco dotriñac: esan diran liburu eta paperac beraz, osoro dira peligro aundico gantzac, fedea galdu edo liberalqueriyara itsatsitzeco.

G. Dotriña guezurti eta gaiztoac nolatan dira añ itsatsicorrac?

E. Arrazoi bigatic dira ala: bata da, eguiyaren eta ontasunaren ichura cerbaitequin datocelaco: eta bigarrena da, gure griña gaiztoen aldecoac diralaco, edo eta gaitzera eta oquerqueriyara osoro macurtubac gaudelaco.

G. Cer becela ditugu orduban liburu eta paper liberalac?

E. Jaqui edo edari puzoitsubac becela; eta are nayago bada, lurreco paradisuban debecatuba cegoan arbola artaco frutac becela, campotic eta ichuraz ederrac eta gozoac, bañon barrundic eta izatez ustelac eta galgarriyac.

G. Liburubac edo bestelaco paperac ote dira oquerragoac?

E. Gaiztoz, *gaiztoagoac* dira liburubac, pozoï gueyago edo gaitz aundiya-goä dacartelaco; bañon calteari beguiratzen badiyogu, *caltegarriyagoac* dira paperac, gende artean ascoz gueyago corritzen dutelaco.

G. Cer irudi jarri diteque esan dana obetogo adierazteco?

E. Eroceñec daqui artzac esaten diran animaliyac, assariyac bañon gaiztoagoac dirala; bada animali oyen atzaparrac, letaguñac, indarra eta atzitzen dutea eiza ere, assariyenac bañon aundi-yagoac dira: assariyac ordeä gueyagotan icusteu dira, eta indar guchiyago dutelarican, sarriyago eguiten dute eiza baserriyetan, eta dira beragatican caltegarriyagoac.

G. Cer liburu dira liberalac gueyen-gueyena zabaldu oi dituztenac?

E. Araguizco condaira edo *nobela* gaiztoac.

G. Cergatican zabaldu oi dituzte aimbeste liburu oyec?

E. Liberalqueriya gende artean itsatsitzeco egoqui-yenac berac diralaco.

G. Nolatan bada?

E. Guertaera edo contubac dacaiz-
quiten liburnac dira gaur gustoren-gus-
torena iracurtzen diranac gende artean,
gazte gendearen artean batezere: beste
aldera berriz, araguiyaren atseguin li-
zunac dira, biyotza loitu eta gueren-
co ezagüera illundubaz, segurubona
dacartenac liberalqueriya: nobela edo
amoriyo gaiztoco liburubac beraz, con-
daira edo guertaldiyaquin batera ara-
guiyaren berogarri asco dacaizquitenac
becela, osoro dira egoquiyac liberal-
quyeriara gendea itsatsitzeco, eta gaz-
te gendea ez guchiyena.—Esan diran
amoriyo gaiztoco liburu oyetan, baita-
ere eliz-guizonen edo erlijioaren con-
traco ateraldi gaizto asco contatu oi
dira, eta sinisturic iracurleac ichu-
ichuan contu ayec, galtzen dute eliza-
raco len iduqui cezaqueen gogoa, eta
fedea bera ere bai azqueneraco: gendea
liberaldutzeco beraz nobelac diran ba-
ñon liburu egoquiyagoac eciñ izan.

G. Eta liberalen paperetan caltega-
rriyenac ¿cer oto dira?

E. Periodicu edo *gaceta*c.

G. Cergatican?

E. Arrazoi ascogatic.

G. Cer arrazoi dira oyec?

E. Leuengoa da, beren *ugaritasuna*; bada gaceta on batentzat guchiyenaz amar liberal badaude, eta arguitaratzen dira gañera oyec egunero, au da, jai eta aste.—Bigarrena da, gacetac gendearentzat duan *erosotasuna*; bada ascoc paper-sortac edo liburubac iracurtzeco betaric eta gogoric ere ez dute, bañon gaceta edo periodicuba iracurtzeco, gauza laburra becela, erocetec du.—Irugarrena da, gacetac, bestelaco paper-sorta edo liburuben gañean, dautucaten *mañá*, dotriña gaiztoac iracurleari ezarritzeco; bada liburubetan eta paper-sortetan bateraco gueyegui ematen da dotriña gaiztoen puzoya, eta izuturic beragatican, catolico ascoc iracurri nai izaten ez dituzte: bañon gacetac piscabanan edo tantoca becela ematen dutelaco puzoi-ori, gaitzic ez dutela-coan ascoc eta ascoc iracurtzen dituzte.—Eta laugarren arrazoya da azque-nic, bestelaco paperac ez becela, *noticiyac* edo berriyac emateco dira periodicubac, eta erocetec daqui cer egarri-ya dagoan gaur berriyac jaquiteco.—Liberalen paperetan beraz, caltegarri-yenac gaceta edo periodicubac diugu.

G. Gaceta liberalen artean desberdintasunik ez al dago?

E. Bai, badago.

G. Cer desberdintasun da ori?

E. Erlijioaren contra batzuec gueyago eta besteac guchiyago itzeguitea: edo liberalqueriya batzuec nabarmen eta besteac zomorroquiro eracustea.

G. Cembatalletan sartu litezque gaceta liberal guciyac?

E. Irutan.

G. Cer malla dira bada oyec?

E. Lenengoa da, erlijioyoco gaucen contra osoro nabarmen eta beti itzeguiten dutenena: ala dira beste batzuen artean, *El Motin* eta *Las Dominicales* esaten dirauac.—Bigarren mallan sartzen dira, liberalqueriya catolicotasunaren gañean daducatenac, edo eta catolicotasunari dagozquiyon dotriña batzuen contra noicic bein itzeguiten dutenac: malla onetacoac dira *El Globo*, *El Liberal*, *El Imparcial*, eta beste asco eta asco.—Irugarren mallacoac berriaz dira, mingañean edo esaeretan catolicotasun aundiya iduqui, eta dembora berean catolicoric onenac edo osoac beguico zacarra hañon gueyago icusi ocin eta liberalaquicoa *benaz* galdu nai

ez dutenac: ala dira beste ascoren artean, *La Epoca*, *La Correspondencia de España*, *El Diario de Barcelona* eta *La Unión Católica*.

G. Esan diran iru malla oyetaco gaceta liberalac ¿cer becela dira?

E. Lenengo mallacoac dira, ama bat nabarmenquiro *puñalarequin* ill nai luqueen ume billaubac becela: bigarringoac dira; issillican eta piscabanan *puzoya* emanda ama ill nai luqueen seme falso edo saltzalleac becela: eta irugarren mallaco gacetac berriz, edo gaceta catolico-liberalac, eguiyazco laguntasunaren faltaz amari iltzen utzi nai liyoqueen ume berecoyac becela dira.

G. Esan diran gacetetan oquerrenac edo caltegarriyenac ¿ceñ dira?

E. Irugarren mallacoac, edo catolico-liberalac.

G. Cergatican bada?

Beste mallacoai, edo nabarmenquiro gaiztoac diranai, izua diye catolico onac, eta iracurri ez oi dituzte alaiño; bada jaquiñaren gañean edo beraiz, errucarri batzuec czpadá, puzoiric iñorc artu nai izaten ez du: bañon irugarren mallaco gacetac, edo catolico-liberalac,

animarentzaco puzoya tantoca bacarrie eta ezcutuban dacarto, eta gaitzie ez dutelacoan, esateco, erocñ catolico on edo osoac iracurtzen ditu.

G. Cer puzoi da *La Epoca* gacetac dacarrena?

E. Catolicoa izan nai duala diyo, bañon baitaore *onra* aunditzat daduca gaur liberala izatea: adierazten du gñera, obispo jaun guoyenac eta *oraingo* Aita Santuba bera ere bai, liberalac dirala: jasotzen ditu noiz-nai Elizaren etsairic gogorrenac, despreciatzen ditu erlijiotsubac, eta erlijiyoaren alde itzeguiten duanetan ere, *fedetic* datocen arrazoi edo sinisgarriyac ematen ez daqui.

G. Eta cer puzoi du *La Correspondencia de España*, periodicu añ zabal-duba dagoanac?

E. Paperaren beeco partean edo azpico aldean, *nobela* gaiztoac edo naicoa loyac ocarri oi ditu: judu, masoi eta Elizaren contraco gauza edo personen *alde* tilde batzuec botatzen ditu, eta ez guchiyago eliz-guizonen *contra*: eta azquenic, *La Epoca*-gatic esan dan beste guciya, esan diteque *La Correspondencia de España*-gatic ere.

G. *El Diario de Barcelona* eta *La Union Católica* gacetac zer gaitz dute?

E. Liberalqueriren bat ona edo gaiz gabea badala eracutsi oi dute: *El Liberalismo es pecado* liburuchoa ontzat eman zuan erromaco epaya aintzacotzat ez daducate, eta liburu orren escriptzalle manso eta onen antzeco guciyac, icusi eciñ eta gaizqui esacaquin loitzen dituzte: Elizaren etsayentzat bigun-tasun falsoa, eta catolico oso eta ermo-tsuentzat madaricaciyoa escatzen dute: eta *atzamur* batznec eguiten badizte ere masoyai eta liberalai, berac catolico onac dirala adieraci nairic, *benaz* ordea alcarren artean aserretzen ez dirade; nolanaire beintzat, Elizaren etsayac, gaceta oyen aldeco catolicoai beldurric batere ez dicee.

G. Cer becela ditugu orduban *gaceta catolico-liberalac*?

E. Ardo gozoarequin puzoi pisca bat daducaten *ontzi doratubac* becela: edo belaza eder batean ezcutaturic dagoan suguea becela.

G. Euscal-erriyan periodicu gaizto edo liberalic moldizquiratzen ote da?

E. Baitaere gueyegui.

G. Cer periodicu dirado bada oyec?

E. Nabarmenquiro gaiztoac Donostia-co *La Voz de Guipúzcoa* eta Bilbao-co *El Norte* dirade.

G. Catolico ónac ¿cer icengoiti ipiñi ciyen *La Voz de Guipúzcoa*-ri?

E. Añ gaiztoa da bolaretan gaceta ori ece, beste icenic egoquitzen etzayo, *Infernuco otsa* edo *Voz del Infierno*.

G. Eta ¿cer icenecoac dirade euscal-erriyan corritzen duten gaceta *catolico-liberalac*?

E. Sonatubenac dirade oyec: Donostia-co *El Eco*, Bilbao-co *El Noticiero* eta *La Union Vasco-Navarra*, eta Vitoria-co *El Anunciador*.

G. Ceatu dan arrazoyaz gañera ¿cer-gatican gueyago da añ gauza gaiztoa liberalen liburu eta paperac iracurtzea?

E. Lenago esanac dauden bi arrazoya gatic: bata da, liburu eta paper gaiztoac añ itsascorrac izanie, liberal-queriyari asco eusten diyotelaco: eta bestea da, liburu eta paper gaizto edo liberalac iracurriyarequin escandaloa edo gaitz-bidea ematen dalaco; bada alaco iracurleac guchiye naz adierazten dutena da, beren paper edo liburubac gaitzic ez dutela, eta orrequin ematen dute besteac ere iracurtzeco bidea.

G. Eta ¿gaiztoa al da liberalen liburu eta paperai diruba ematea?

E. Gaiztoagoa besterican ez da.

G. Cergatican bada?

E. Diruba dalaco gueyen-gueyena eusten diyena liburu eta paperai; bada diruric gabe dembora luceco biciya ez leucaquete liberalen liburu eta paperac; ezta ere beraz liberalqueriyac daducan indarric aundiyena, ez leucaque; eta aimbeste catolicoen anima gajoac pu-zoituco ez liraque dotriña eta opiniyo gaiztoaquin.

G. Esan diraden liburu eta paperac iracurtzea, edo eta berai diruba ematea ¿debecatuba aldago?

E. Jangoicoaren leguean gaiztaqueri guciya debecatzen da; baita ere beraz liberalen liburu eta paperac iracurtzea, edo beretan diruba gastatzea, debecatuba dago Jaungoicoaren leguean. —Gañera: gaitz bat debecatzen danean, baita ere gaitz artaraco bideac edo arriscubac debecatzen dirade; debecatuba dago liberalqueriya; baita ere beraz artaraco añ bide zucenac edo arriscu aundiyac, nola diraden liburu eta paper liberalac, debecatubac daude.

G. Obispo jaunac ¿cer esaten digu gai orrezaz?

E. Vitoria-coac bere lagunaquin batera, gauza chit egoqui ascoren artean, ara cer eracusten duban: «Erljiyoarequin eta oitura ónaquin *guciyando* ez datocen *liburubac*, *paper-sorta* edo *gacelac* ez *iracurri*..... *Ez lagunduzuen dirubarequin ezta ere zuen iconaquin*, *liburu*, *paper-sorta* edo *gaceta gaiztoai*.»

G. Pecatu izango da orduban liberalen liburu eta paperac iracurtzea, baita ere berai dirubarequin laguntzea?

E. Bere izatez, bai, pecatu larriya da.

G. Cergatican?

E. Liberalen laguntzalle izatea, ascotan esan denez, pecatu larriya da: baitaere beraz ala da liburu eta paper liberac iracurtzea, edo eta beretan diruba gastatzea.—Pecatu larriya da gñera, gaitz aundiyetaraco bide zucen edo urreco peligro guciya: liberalen liburu eta paperac berenez osoro dirade liberalqueriyaraco bide zucen edo arriscu aundiyac: berac iracurri edo berai dirubarequin laguntzea ere beraz pecatu larriya da berez.

G. Nola asmatuco dute catolico ónac cer liburu eta cer gaceta edo paper iracurri ditzaketen gaitzeraco peligroric gabe?

E. Elizaco aguimbideac ontzat ote daduzcan icusiyarequin: edo eliz-guizon celotsu eta jaquindunari galdetuta: edo eta liberalac diraden edo ez diraden jaquiñarequin.

XVI.

Bucaera.

Galdera. Esan diraden contubetan ¿cer da catolico euscaldun ónac eguin bear dutena?

Erantzuer. Liberalqueriya osoro gorrotatu.

G. Cer becela gorrotatu bear da?

E. Gaitz itsascor bat becela; bada esana dago, liberalqueriya osoro dala poste edo izurri gaiztoa.

G. Eta gorrotatzeco ¿cer eguin bear da?

E. Gaitz itsascorrac icutzea nai ez danean eguiten dana bera.

G. Cer bada?

E. Gaitza itsatsitzeco ariscubetatic aleguñean aldeguitea.

G. Nola asmatuco dute catolico ónac cer liburu eta cer gaceta edo paper iracurri ditzaketen gaitzeraco peligroric gabe?

E. Elizaco aguimbideac ontzat ote daduzcan icusiyarequin: edo eliz-guizon celotsu eta jaquindunari galdetuta: edo eta liberalac diraden edo ez diraden jaquiñarequin.

XVI.

Bucaera.

Galdera. Esan diraden contubetan ¿cer da catolico euscaldun ónac eguin bear dutena?

Erantzuer. Liberalqueriya osoro gorrotatu.

G. Cer becela gorrotatu bear da?

E. Gaitz itsascor bat becela; bada esana dago, liberalqueriya osoro dala poste edo izurri gaiztoa.

G. Eta gorrotatzeco ¿cer eguin bear da?

E. Gaitz itsascorrac icutzea nai ez danean eguiten dana bera.

G. Cer bada?

E. Gaitza itsatsitzeco ariscubetatic aleguñean aldeguitea.

G. ¿Cergatican aldeguin bear da arriscu edo peligrotatic?

E. Gaitzaren arriscuban naita edo beraiz dabillenari, azqueneraco gaitza itsatsi oi zayolaco.

G. Cer diyote gai orrezaz liburu santubac?

E. Espiritu Santubac ala diyo: *Arriscuba nai dubana bertan erorico da:* (1) Esau nai du, gaitzaren arriscutic aldeguin nai ez dubanari gaitza etorrico zayola.

G. Cer arriscu dirade ordea utzi bear diradenac?

E. Bata da, gaitz itsasorra dutenakin ibiltzea.

G. Liberalaquin beraz traturic bear ez da?

E. Ez gueyegui.

G. Cergatican bada ez?

E. Liberalaquin gueyeguiyan dabiliena azqueneraco liberaldu oi dalaco; bada esaera batec ala diyo: *Esan zazu norequin zabilizan, eta nor ceran esango dizut.* Beste esaera batec berriz onela diyo: *Errenaquin dabiliena erren bihurtzen da.*

(1) *Eccli.* cap. 111, v. 27.

G. Cer ipui, antzunde edo guerta-
erarequin adierazten da obetoago do-
triña ori?

E. Sagar ónac nastutzen badira us-
telaquin, azqueneraco guciyac dirade
ustelac: eta era herean, liberalaquin on-
do iduqui nai badute catolico osoac,
guciyac liberaltzen dirade azqueneraco.

G. Catolico ónaquin dabiltzan libe-
ralac eciñ ondu al ditezque bada?

E. Gueyenean ez beintzat ontzen
ez dirade, sagar ustelac ónaquin on-
tzen ez diraden becela, edo eta errenac
zucenaquin zucentzen ez diraden be-
cela.

G. Cergatican ote da ori?

E. Gaitza aldapa beera eta óna al-
dapa goora eguiten zaigulaco; bada añ
etzanac gaude gaitzora eta añ naguiyac
eta nequezac guerade gauza ónetaraco.

G. Ceatzen ari gueraden dotriña si-
nistaracitzeco ¿cer guertaera da egoqui-
yena?

E. Jaungoicoaren erriyarequin edo
judubaquin legue zarreco demboretan
icusi oi zana.

G. ¿Cer bada?

E. Cembat bider alcar-artu edo
nastutzen ciraden judubac fedegabea-

quin, beste aimbeste aldiz oquertu eta jarri ciraden jaungoico guezurrezcoac edo idoloac adoratzerá.—Beragatican ere debecatu cizten Jaungoicoac judubai fedegabeaquico tratu guciyac.

G. Cer itzaquin debecatu oi cizten?

E. Itz astun oyequin: «Fedegabeco gendeaquin *alcar-artuco ez dezute*, ayen jaungoicoaquin ere ez. *Zuen erriyan bici ez ditecela*, ayen jaungoicoac serbitzera jarri eta nere contra *pecatu eraguin ez deizuten*: bada ori eguiyaz zuen gaitzeraco litzaque..... ayen erruquiric ere izango ez dezute..... baicican ara cer eguin bear diyezuten: hota beren aldareac, eta puscatu beren egon-lecubac, eta deseguin beren basoac, eta erre beren imajiñac.» (1)

G. Esan diraden itzaquin ¿cer adierazten zaigu?

E. Adierazten zaiguna da: dotriña edo erlijiyo gaiztocoquin aleguiñean ez gabiltzala beren gaitza ezarri ez deiguten; erruqui ez ditzagula gaiztoac beren gaiztaqueriyac eciñ eguin ditzaketenean, baicican gaitzeraco egoac eta bideac quendu deiztegula.

(1) *Exod.* cap. XXIII, vs. 32 et 33. — *Deuter.* cap. VIII, vs. 2 et 5. — Vide similia.

G. Cer da judubai gueyen-gueyena debecatu oi citzayena?

E. Fedegabeaquico *ezcontzac*.

G. Cergatican ote zan ori?

E. Fedegabeaquin ezconduta berac ere fedegabotu etzitecen; bada gaiztoa onduco dan bañon ascoz lenago gaiztotuco da óna, lensseago esan dancz: ezcondubetan batecere, gaiztoac ónari jarraituco diyon bañon seguruago jarraituco diyo onac gaiztoari, bada añ dirade aundiyac gaitzeraco erraztasuna eta óneraco atzerapena: eta guraso gaiztoetatic datocen umeac ere gaiztoac izan oi dirade, bada arbola gaiztoac fruta onie ematen ez dute: fedegabeaquin edo dotriña gaiztocoquin ezcontzea beraz, gaitzari iranpena ematea da, eta arrazoi aundiyarequin debecatu cizten Jaungoicoac judubai fedegabeaquico ezcontzac.

G. Cer ciyon gai orrezaz Jaungoicoaren legueac?

E. Ona emen legueco itzac: «Zuen semeentzaco emaztea fedegabeen alabetatic artuco ez dezute, jaungoico guezurrezcoac adoratubaz oyec, guero zuen semeac ere jarri ez ditzaten jaun-

goico guezurrezcoac adoratzera» (1)—
«Ez eguin ezcontzac fedegabeaquin.
Zuen alabac emango ez dizquiyotzute
ayen semeai, eta zuen someentzat ez
dituzute artuco ayen alabac; bada en-
gañatuco dituzte zuen semeac, li utzi-
ric, erbesteco jaungoicoac serbitu di-
tzaten.» (2)

G. Gaiztoaquico ezcontzetan gaitze-
raco dagoan arriscu aundiya ¿cer guer-
taeraquin sinistaracitzen da ongui?

E. Liburu santubac dacarten one-
quin. *Jaungoicoaren semeac eta guizonen*
alabac, au da, guizaseme ónac eta
emacume gaiztoac, ezcontzaz alcarga-
natu ciralaco, guciyac oquertu ciraden
azqueneraco; baitaere beren umeac eta
ondorengoac osoro etorri ciraden gaiz-
toac, ondatzen citubala gueroenean
Jaungoicoac ugalde izugarri batequin;
eta ordutic ere Jaungoicoac auqueratu
nai izandu zuban erri bat, nastu bearco
etzubana fedegabe edo gaiztoaquin, lo-
nago esan dan becela. (3)

G. Liberalaquin ere beraz ezcon-
tzac eguin bear ez dirade?

(1) *Exod.* cap. cap. XXXIV, v. 16.

(2) *Deuter.* cap. VII, vs. 3 et 4.

(3) *Genes.* cap. VI, vs. 2, 4 et 5.—Etc.

E. Aleguñean ez.

G. Cergatican bada ez?

E. Liberalaquin ezcontzea, familiya liberaltzea da: eta familiya liberaltzea berriz, liberalqueriyari iraupena ematea da: liberalaquico ezcontzac beraz eguin bear ez dirade.

G. Cer besteric iracurtzen da liburu santubetan darabilquigun gai orrezaz?

E. San Juan ebanjelistac ara cer oscribitu zuban: «Jesucristoren dotriña ez dacarrena, ez dezazutela echean artu, *diosalaric* ere eguin bear ez diyozte; bada alacoari diosala eguiten diyonac, aren obra gaiztoetan parte artzen du. (1)

G. Cer esan nai ote da orrequin?

E. Esan nai dana da, dotriña gaiztocoquin adisquidetasunic bear ez dala, eta losincharic ere eguin bear etzabela, gure adisquidetasun edo losincharquin gaitzeraco egoac artu eta ayen gaiztaqueriyetan guc parteric izan ez dezagun.—Juan ebanjelista santubaren esaeran beraz, liberalaquin adisquidetasunic bear ez da, losinchac ere eguin bear etzaizte berai, gure adisquidetasu-

(1) II Joan. vs. 9, 10 et 11.

na eta losinchac liberalqueriyan irau-
teco hideac izan ez ditzaten.

G. Cer gueyago iracurtzen da libu-
ru santubetan?

E. San Pablo apostoloac ala ciyon:
«Senidearen icena daramana araguico-
ya baldiñ bada, edo cuticiotsnba, edo
jaungoico guezurrezcoac serbitzen di-
tubana, edo birauguillea, edo ordiya,
edo lapurra, orrelacoarequin *jan ere*
bear ez dezute.» (1)—Arrazoi gueyago-
requin utzi bear dirade beraz liberala-
quico tratubac; bada liberala izatea,
icusiya daducagunez, gaitzic aundiye-
netacoa da.

G. Cer besteric diyo Pablo apostolo
santubac?

E. Corintio-co cristaubai ara cer es-
cribitu ciyen: «Fedegabeaquin uztarri-
ric ez dezazutela eraman.» (2)—Esan
nai du orrec fedegabeaquico ezcontza
edo tratubaquin jaungoico guezurrez-
coac adoratzera jartzecotan corintioa-
rrac, edo eta fedea galtzecotan, etzite-
cela ezcondu edo baterere etzezatela
tratatu fedegabeaquin.—Liberalaquico
tratu edo ezcontzaquin ere beraz, fedea

(1) I Cor. cap. V, v. 11.

(2) II Cor. cap. VI, v. 14.

galdu edo austecotan, edo eta liberal biyurtzecotan, catolico ónac liberala-quin tratatu bear ez dute, eta guchiyago ezcondu.

G. Santu orrec ez al diyo beste gauzaric gai herean?

E. Baitaere escribitzen du: «Beñgoan eta bigarren aldiyan eracutsi diyozun guizon *fede etsayagandic igueseguin ezazu.*» (1)

G. Cer esan nai du orrec?

E. Esan nai du, dotriña gaiztoac utzi nai ez dituztenetatic aldeguin bear dala: baitaere beraz liberal *setotsubagandic* iguesi ibilli bear dutela catolico ónac.

G. Bañon eta gaitzeraco tentaquinac ematen dituztenai ¿cer esan bear zate?

E. Jesus mansoac here tentatzallari ala esan cion: *Joan ari emendic, Satanas!* (2)—Gauza gaiztoetara tentatu edo ciricatzen dutenai ere beraz esan bear zatena da: *Zoarte nigandic, Satanasen ordecoac!* bada zubequin conturic nai ez det.

G. Dotriña orren alderaco ¿cer guer-

(1) Epist. ad Tit. cap. III, v. 10.

(2) Matth. cap. IV, v. 10.

taera da catolico ónac beti gogoan idu-
qui bear luquetena?

E. Policarpo santubaren eta Mar-
cion fede-etsai aundiyaren artean icusi
zana.

G. Cer bada?

E. Erroman topo eguin zuten ba-
tuan, fede-etsayac santubari ala galde-
tu cion: *Exagutzen gaituzu?* Eta san-
tubac erantzun cion: *Satanasen seme*
nagusiya cerala badaquit.(1)—Dotriña
gaiztoco guciyac beraz, eta liberalac ez
guchiyaena, lenago esan zanez, Satana-
sen umeac dirade, eta argatican alde-
guin bear da beretatie, animaren etsa-
yetatie becela.

G. Liberalaquico tratuba eta ezcon-
tzac beñere ez al dira bear?

E. Batzubetan bai, libre dirade.

G. Noiz bada?

E. Liberalqueriyaraco peligro zu-
cen edo urcoric ez dagoan guciyan, edo
eta *eguiyazco* premiyac eta caridadeac
aguintzen dutenean.

G. Cergatican ori?

E. Gaitzeraco arriscuba borondatez-
coa ez danean, au da, naita billatzen

(1) D. Hieron. *De Script. Ecclesiasticis*.

dana, urruti dago gaitza: baitaere Jaungoicoac laguntzen badaqui alacoan, gaitza itsatsi ez dediñ. —Eguiyazco premiya edo caridadeagatic diradencan beraz liberalaquico tratuba eta ezcontzac, liberalqueriyaraco gogoric eta peligro urrecoric ez dago eta beragatican dirade orduban libre.

G. Dotriña ori obetoago adierazteco guertaera batzube jarri bedizquit.

E. Legue zarreco Jose guizasemo òna, gaitzeraco arriscu aundi batean nai gabe arquitu zalaco, erori etzan arretan: Judit ceritzayon andre alargu-nac ere, osoro peligro aundiyan bere buruba jarriyagatican, erori etzan pecatuban, carideagatic edo Jaungoicoaren erriya esturasunean serbitzeagatican jarri zalaco añ arriscu aundiyan. —Eta contrara: Dina doncellachoa, Dávid erreguea, eta beste asco eta asco, gaitz edo pecatu aundiyan erori izandu dirade, artaraco arriscubetan premiya gabe edo eta beren gogo utsez jarri izandu diralaco.

G. Gaitza *nai izatean* dago beraz eguiyazco peligroa?

E. Bai, ala dago. Espiritu Santubac ere beragatican diyo, arriscuba *nai du-*

bana erorico dala bertan: eta ez diyo, arriscuban *jartzen dana* erorico dala.

G. Liberalaquico tratubaz gañera liberalqueriya catolico ónai itsatsitze-co beste arriscuric ote dago?

E. Liberalen liburu eta paper gaiztoac iracurtzea ere osoro da, lenago esana dagoancz, liberalqueriyaraco bide zucena.

G. Cer da heraz liburu eta paper gaiztoaquin catolico ónac eguin bear dutena?

E. Gaitza itsatsi dezaqueten soñeco, traste eta gauza guciyaquin eguiten dana bera.

G. Cer bada?

E. Pusca-pusca eguin eta erre.—Pablo apostolo santubac, Efeso esaten zan erri aundi batean, eun milla erreal becela baliyo zuten liburu gaiztoac erre eguin cituban.—Eliza ama santac ere, aurreco guizalldiyetan, erretzeco aguin-du oi zuban fede-etsayen liburu eta paper-sorta gaiztoac.—Liburu eta gaceta liberalac ere beraz lembailen erretzea da segurubena; eta guchiyenaz beintzat, iracurri gabe, confesoreari edo errico apaiz nagusiyari eman bear zaizca, biraldu ditzaten oyec obispo jaunagana.

G. Cer gueyago bear da liberalqueriya ez itsatsitzeco?

E. Munduco atseguin guciyac dirade guchi-ascó liberalqueriyaren itsascorrac; baitaere beraz atseguin gaizto guciyac utzi bear ditu liberalqueriya itsatsitzea nai ez dubanac.

G. Nolatan dirade atseguinac liberalqueriyaren itsascorrac?

E. Munduco atseguinac, pichinca bada ere, biyotza usteldu edo gaiztotzen dute; eta biyotza gaiztotzean, osoro dago sasoyan persona liberalqueriyaraco; bada biyotzetie burura bide guchi egoteaz gañera, esaera zar batec ara cer diyon: *nai degun hura, erraz sinistu oi degu.*—Atseguin mundutarrac billatzen ditubanac beraz, gaiztaqueriyac ere ontzat laster emango ditu, eta orra nun dagoan liberalqueriya.

G. Cer irudi jarri diteque gauza ori obetoago adierazteco?

E. Fruta bat cembat guriyagoa edo eldubagoa dagoan, usteltzeco ere ambat dago urrago: eta era berean, cembat gozoroago bici gueraden gu, prestubago ere gaude gaiztotu eta libe-raltzeco.

G. Ote daquite ori liberalac?

E. Daquitelaco dabilitz eguiñala guciyan jostaqueta eta gozaerac gendeari ezqueñtzen.

G. Cer atseguin dirade ordea liberalac esqueñi eta guc utzi bear ditugunac liberalqueriyara itsatsi ez gaitecen?

E. Jaungoicoac emandaco leguearen urratzalleac, edo atseguin aragui-coyac, *gende arteracoac* batecero, nola diraden tabernetaco ordiqueriya, gaubetaco ibillera gaiztoac, cafeetaco egoera luce eta alperrac, dantza lotsaga-beac, comediya, teatro edo eta beste cembait icusgarri lasayac, lenago ere cerbait esaua daducaguncz.

G. Catolico osoa izateco beraz ¿cer bear da?

E. Liberalqueriyagandic urruti ibilli.

G. Eta ¿nola ibillico guerade liberalqueriyagandic urruti?

E. Liberalqueriyara daramaten bide guci-guciyac utziyaz, edo artaraco arriscu guciyetatic aldeguiñaz.

G. ¿Cer besteric bear da gaur catolico óna edo eguiyazcoa izateco?

E. Jaungoicoaren legueaz erara hi-

citzeaz bat, baitaere liberalqueriyaren
contra eguiñala guciyac eguin bear di-
rade.

A. M. D. G.

ARQUIBIDEA



Orriyan.

Obispo jaunaren edo bere orde-	
coaren baimena	3
Ama Birgiñari esqueñtza. . . .	5
Iracurleari itzaurrea.	8
I.—Sarrera	11
II.—Liberalqueriya cer dan as-	
coc ez daquite.	16
III.—Adierazten da liberalque-	
riya cer dan	24
IV.—Gai bera.	31
V.—Gai bera.	41
VI.—Liberalqueriya debecaturi-	
can dago.	52
VII.—Gai bera	61
VIII.—Gai bera	70
IX.—Pecatubaren gañeco dotriña	82
XX.—Pecatu larriya da liberal-	
queriya	94
XI.—Gai bera	101
XII.—Gai bera	110
XIII.—Aintzacotzat ez dagoan	
gaitza	121
XIV.—Botoac	129
XV.—Liburu eta gacetac. . . .	136
XVI.—Bucaera	148

